



ttipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus

2015eko azaroaren 12a | XXXV. urtea | 650. zenbakia



100 urte bete ditu

Beintza-Labaiengo
Bautista Goñik

Gehigarri bereziak

Lesakako feriak eta
Eraikuntza

LESAKA → 14

Eduene Pasabanen
hitzaldia azaroaren 13an

GOIZUETA → 53

Azaroako kulturaldian
bete-betea sartuta

SARA → 62

Olhain ikastolaren aldeko
bertsu-afaria 21ean

BERA → 64

Mantalek 10x100
erronka bete du



Mugikorraren erabilera egokia: non dago muga?

Mugikorraren menpeko izan edo ez, hortxe dago gakoa Oihana Orcajo hezitzailearen ustez. Nomofobia, ZiberBullynga... bezalako arazoak ugaritzen ari direla ikusirik, gaztetxoaren artean mugikorrak duten garrantzia gogoeta egiteko beharra azpimarratu du. Oreka bilatu eta arduraz jokatu beharko litzatekeela dio eta gurasoak «eredu izan». Arduraz erabiltzen ez bada, «tresna arriskutsua bihurtu liteke eta gure eskuetan».

ELKARRIZKETA → 3

Udazkeneko feriak

Abelburu ederrenak plazara



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL



Torrea ixteko arriskuan

2014ko uztailan Espainiako Auzitegi Nazionalak Leitzako Herriko taberna ixteko emandako agindua, berretsi egin zuen ekainean Auzitegi Gorenak. Hiru hilabete pasa dira geroztik eta ezjakintasuna da nagusi: aurrekaririk gabeko epaia izanik, ez dakite noiz eta nola gerta litekeen itxiera. Honen aurrean, Torrea libre izatea eskatuz, ekimenak antolatzen ari dira.

ERREPORTAJEA → 4-5

Azaroaren 25ari begira egitarau zabala prest

Emakumeenganako indarkeria ezabatzeke nazioarteko egunaren harira, ekintza ugari izanen dira azaroan Baztanen: elkarretaratzea, tailerrak, solasaldiak, erakusketak, antzerkia...

→ 57

ZOKKETAK

→ 72



Txartela egiteko deitu
948 63 54 58ra edo
idatzi info@ttipi.eus-era



OLAIA BAZAR **Leitza**
%10, 30€tik gora



FISOETXEA **Leitza**
%10, 10 saioko bonoan



ARRARE Doneztebe
%10 Skeyndor kremetan



LEITZA KIROLAK **Leitza**
%5, 30€tik gora



OGI BERRI **Leitza**
%5 gozotegian, 25€tik gora



IRRISARRI LAND **Igantzi**
%50 sarreraren etab.



BIXKIAK **Lesaka**
%10



ETXE TRESNAK S.L.
ETXE TRESNAK **Leitza**
%10 koltxoieta etab.



IPARLA **Elizondo**
%8, 30€tik gora



ZORTZIKO **Leitza**
%5 gozotegian, 30€tik gora



GOIKO **Bera**
%10 kopia digitalean



IPINGI **Elizondo**
%10, 30€tik gora



ALTZURI **Lesaka**
%5 etxetresnetan



ZELA **Bera**
%5 kirol artikulueta



ALUSTIZA **Doneztebe**
%10, 30€tik gora



FOTO MENA

MENA **Elizondo**
%10 kopia digitalean



KULUNKA **Leitza**
%5, 30€tik gora



BORTZIRUDI **Bera**
%5 kopietan etab.



KATTAGORRIA **Lesaka**
%10 lenterian



KAPRITXO **Leitza**
%10, 30€tik gora



ZALDUA **Donez/Eliz**
%10 produktueta




KATEA-BIKE **Bera**
%5 konponketetan



POTTOKI **Elizondo**
%5 opari txikietan



MARI CRUZ **Donez/Eliz**
%10, 30€tik gora



OSTARGI **Bera**
%5 produktu guztietan



DATUCELAY **Elizondo**
%10 bateria etab.




HERNANDORENA **Leitza**
%5, 30€tik gora



GAZTELU **Leitza**
%15 osagarrietan



NAFARPRESS **Elizondo**
%10 liburu eta materialean



INTZURI **Lesaka**
%5 produktu guztietan



SANSIÑENA **Elizondo**
%5 olio aldaketan



ARIZTELA **Leitza**
%5, 30€tik gora



ELBETEKO POSADA **Elbete**
%10 kartan 30€tik gora



MAIMUR **Leitza**
%10 oparietan



MENDAUROS **Doneztebe**
%5 pentsu batzuetan



SEMPER **Bera/Lesaka**
%10 matrikulan



GARBI **Leitza**
%5, 30€tik gora



UDAL KIROLDEG. **Lesaka**
%40 matrikulan



OREKA **Lesaka**
%5 kontsultan etab.




JAIONE **Doneztebe**
%10, 12€tik gora



KUKUKA **Doneztebe**
%10 pijama etab.



EDR GUNEA **Leitza**
%5, 30€tik gora




URDI BERA **Bera**
%20 urteko matrikulan



KIMETZ **Doneztebe**
%5 kosmetikan etab.




OSTIZ **Doneztebe**
%10 oinetakoetan



J.J. PIKABEA **Doneztebe**
%10, marka batzuetan



AMAIA **Doneztebe**
%5 kosmetikan etab.



AGARA **Bera**
%5 kirol artikulueta



ELIKA **Bera**
%5 kontsultan



TXINELKA **Lesaka**
%10

Internetek dituen onura eta arriskuei buruzko hitzaldiak eman ditu Oihanak Baztanen. «Gipuzkoa eta Bizkaiarekin alderatuz, Baztanen gaztetxoak beranduago hasten dira mugiko-

rra erabiltzen eta whatsapp da sare sozial erabiliena». Mugikorra edukitzeak ardura eta ongi erabiltzeko konpromisoa behar ditu, «horretarako gai ez bagara tresna arrisku-

tsua bihurtzen da gure eskuetan». Pantailara begira gauza aunitz jaso eta bertze aunitz galtzen ditugu, «egokiena oreka bat bilatzea da, guztia egiteko denbora baitauekagu».

Oihana ORCAJO GONZALEZ | Hezitzailea

«Mugikorrarekin engantxatzea erraza da eta ez da osasuntsua»

GARBIÑE ALTUXU |

Zenbat urtetik aurrera erosi beharko litzazieke mugikorra seme alabei?

Familia bakoitzaren egoera, behar eta hezteko moduaren arabera izango da hori. Eurekin kontaktatzeko ongi datorrigu (internetaren edukitzea bertze kontu bat da). Idealena mugikorra zer den, nola erabili behar den, dakartzen arriskuak eta gure burua babestuta mantentzeko prebentzio arauak ulertu eta aplikatzen ikasi arte mugikorrak ez edukitzea litzateke. Bitartean, gurea erabili dezakete, gure laguntzarekin, gure arauarekin eta pixkanaka negoziaketa ezberdinak aurrera eramanez. «Lagun guztiek mugikorra dute, nik izan ezik...»

Ezezko hutsak ez die balioko, beraz, norberak ezezkoaren arazoak ongi argitu beharko dizkie.

ZiberBullyinga aipatzen da azkenaldian...

ZiberBullyinga, bide telematikoa erabiliz egiten den eraso psikologikoa da. Sare sozialak erabiltzeak dakarren berehalakotasunak, kalte egiteko erraztasunak, interneten potentziak, ingurune digitalean enpatia garatzeko zailtasunak, ... dira berdinak arteko gatazken eragile nagusiak eta *ZiberBullyinga* areagotzen dutenak.



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

Baztango ikasletoetako ikasleei hitzaldiak ematen ari da Oihana hezitzailea.

Nola aurre egin honi?

Prebentzioa da bidea. Bizitzarako trebetasunak ingurune berri honetan ere lantzea garrantzitsua da; enpatia, harremanak, ... Beroak edo txantxa batek nahi gabe gure eskuetatik zeinen erraz ihes egin eta zenbat kalte eragin dezakeen ikusi eta ikasi behar dute.

Zer da "Nomofobia"?

"No-mobile-phone-phobia", ingelesez dator. Mugikorra galdu edo ahaztearen beldurrari deitzen zaio. Mugikorrak ez dugunean, estresa edo antsietatea sentituz. Ez da adikzio kontsideratzen, momentu zehatz bateko estresa edo antsietatea baizik.

ENTZUN ETA ULERTU

«Komunikazioak berebiziko garrantzia du, entzun egin behar ditugu, baita ulertu ere, normala eta ulerkerria da mundu honekiko azaltzen duten interesa. Gure esku dago mundu hau beraiekin deskubritu eta pixkanaka modu egokian beraiek ere bertan sartzen hastea. Hortaz, seme alabeekin benetan landu beharrekoa, elkarren arteko konfiantza da».

Zein eragin dauzka mugikorrarekiko menpekotasunak?

Menpekotasun baten aurrean gaudela pentsatzekotan, sakonago aztertu beharko genuke jatorria, beste arazo sakonago batzuetatik ihes egiteko mugikorra edo internetaren erabiliz babes-ten baitute euren burua askok. Hala ere, gehiegizko erabilerak elikatze-ohitura txarrak, sedentarismoa, ongi lo ez egitea, senide eta lagunekin harremanetan arazoak edukitzea, eskolako erritmoan behar gabe nabarmena izatea... dakartza.

Erabileran mugak jarri behar zaizkie?

Zalantzarik gabe. Guztia-

rekin bezala gehiegizko erabilera ez da osasuntsua eta mugikorrekin engantxatzea oso erraza da. «Lege» batzuk jarritzea komenigarria da eta eurekin negoziatuak eta adostuak badira hobe. Kontu handia eduki behar dugumenpekotasunaren gaia transmititzeko moduarekin, ez baitu ezertarako balio menpekotasunaz hitz egiteak aldi berean helduek Informazio eta Komunikaziorako Teknologien erabilera handia egiten dutela ikusten badute, geu gara eredu. Nerabe eta gaztetxoek lagunekin egon eta hitz egiteko beharra dute eta konexio hau errazten duten tresna digitalak erabiliko dituzte; hori ere uler dezagun.

Nola landu gaia eurak haserretu gabe?

Komunikazioak berebiziko garrantzia du, entzun egin behar ditugu, baita ulertu ere, normala eta ulerkerria da mundu honekiko azaltzen duten interesa. Gure esku dago mundu hau beraiekin deskubritu eta pixkanaka modu egokian beraiek ere bertan sartzen hastea. Hortaz, seme alabeekin benetan landu beharrekoa, elkarren arteko konfiantza da. Edozein arazo dutenean, guregana laguntza eske lasai hurbil daitezen beranduegi izan baino lehen.

GIZARTEA → TORREA TABERNA

Itxieraren itzala teilatu gainean

Espainiako Auzitegiek Torrea ixteko emandako agindua inork ez daki nola gauzatuko den

Aurten bete dira 22 urte Leitzako plazan herriko taberna ireki zutenetik. Urteurren festa gozorik ez da izan ordea. Duela 13 urte abiatu zen prozesua, goiko solairua zigilatu eta elkartearen kontuak blokeatu zituztenean. 2014ko uztailan Espainiako Auzitegi Nazionalak itxiera agindu zuen eta Auzitegi Gorenak, ekainean berretsi du agindua. Aurrekaririk gabeko epaia da eta ezjakintasuna da nagusi. Egoera honen aurrean, *Torrea libre!* izatea eskatuz ekimenak antolatzen ari dira herrian.

Eneritz IRAOLA |

Leitzako plazara joan ezkerreko udaletxe parean dagoen eraikina ihes egiten du begiradak. Lau solairuko etxe zuri eta dotorea dago bertan antzina dorrea izan zena. Hortik dator kio izena Torreari, herriko tabernari. 1993ko abuztu hasieran, herriko jaien bezperan, ireki zuten bertan taberna eta egoera xamurra ez bada ere, oraindik lanean ari dira, noiz arte ez dakiten arren.

AUZOLANEAN ERAIKIA

Hutsune garrantzitsu bat betetzeko sortu ziren Torrea elkarte eta herriko taberna. «Herriko kolektiboak biltzeko» toki baten beharra zutela azaldu dio TTIPi TTAPari Joseba Azpiroz, Torrea Elkarte presidentea. «Herriari kulturalki bizitzaren em-

NOIZ ETA NOLA?

«Ez dakigu nola exekutatu duten epaia, ez dagoelako aurrekaririk»

Joseba AZPIROZ

Torrea Elkarte Presidentea

teko eta herriko abertzale independentisten erreferentzi eta lan tresna izan ziren taberna eta lokalak edukitzeko» hasi ziren lanean. Horretarako etxe osoa erosi eta bi solairu saldu zituzten etxebizitzak egiteko «guk bi solairu ditugu, behekoa, taberna dena eta lehenengoa, bulegoa, bilera gela eta biltegi bezala erabiltzen genuena. Duela 13 urte epaitegiek prezintatu egin zutena».

Herriko tabernaren sorreran, «hainbat jende eta talderen diru-



ARGAZKIA: E.IRAOLA

Leitzako plazan, udaletxearen parean dago Torrea.

ELKARTASUN KEINUAK

Torrea ixteko agindua publiko egin zenetik, asko izan dira elkarte eta tabernaren aldeko elkartasun keinuak. Ekainaren 25ean egin zen lehen agerraldi jendetsua. 66 herri eragile eta kultur, kirol... arloko pertsona ezagunek prentsurrekoa deitu eta agiri bat aurkeztu zuten, Torrea Tabernari elkartasuna eta babes osoa emanaz. Geroztik ez dira geldirik egon. Konpromiso eguna, mahai inguruak, erakusketak... eta herrian antolatu diren ekitaldi gehienetan Torrearen aldeko keinuak ere ez dira falta izan. Torrea bera eta herriko lorontziak laranjaz margotu dituzte eta zapi eta kamiseta laranjak ere jarri dituzte han eta hemen. Kontzertuak ere ez dira falta izan: Berri Txarrak, Esne Beltza, Su ta gar, Buzbu... euren musikaren bueltan jendea bildu eta Torreari babesa adierazi nahi izan diote.



TORREAREN ALDEKO EKITALDIAK

Hilabetez hilabete, ekitaldi bat bestearen atzetik prestatuz, lanean ari da Torrea Libre! ekimena. Hilabeteroko plangintza osatzen dute eta azaroa hilabete oparoa izaten ari da oso. Azaroaren 7an Torrea Libre! eguna antolatu zuten, mural margoketa, garagardo pesta eta kontzertuak izan ziren besteak beste. Azaroaren 11n desobedientziaren inguruko mahaingurua egingen dute Ate-kabeltzen. Azaroaren 15ean Herrikoak Libre agerraldi nazionala deitua dago eta herrian egitekoa duten azoka berezian ere presentzia izanen du Torreak. Bukatzeko 22an, eguerdian, auzolanean Herri kirola-Torrea aurrera! jaialdia izanen da.

ekarpenak izan zituzten «kontzertuak egin ziren, txoznak jarri... Obra ere auzolanean egin zen» dio Azpirozek.

ESPazio BAT BIZIBERRITUZ

Herriko taberna irekita, «herriko plaza biziberritzea» lortu zuten «kokaleku pribilegiatuan dago eraikina, herriko plazan baitago. Baina nahiz eta herriaren erdigunean egon, Torrea ireki arte plaza oso tristea zen, ez zen ia jenderik ibiltzen. Orain berriz, jende askoren topalekua da, ia beti dago jendea bertan» gaineratzen du.

TABERNA BAT BAINO GEHIAGO

Torrea herriko taberna baino gehiago izan da hasiera-hasieratik «herriko kultur taldeen erakusleihoa, herri-mugimendu desberdinen bitartekoa eta herritarren elkargunea izan da eta da oraindik ere taberna». Elkartek berak ere «herriari sekulako bizia eman dio, ekitaldi propioak sortu eta herrian izaten diren ekimen garrantzitsuetan ere beti parte hartzen dugu».

HAMAHIRU URTEZ, EZ ATZERA EZ AUERRERA

2002an Guardia Zibilak bigarren solairuko bilera gela ziligatu eta

HERRIGINTZAREN IKUR

«Herriko mugimendu desberdinen bitarte eta herritarren elkargunea izan dena galduko genuke. Eta ez da ahaztu behar itxierak bost langile langabezia utziko dituela».

Joseba AZPIROZ

elkartearen kontuak blokeatu zituen «horrek asko baldintzatu du gure jarduna. Lokala eta tresneria berritzerako orduan oztopoa izan da, baita inbertsioen bat egiteko garaian ere. Gainera duela 13 urte kontuak blokeatu zizkigutenetik eguneroko lana aurrera ateratzeko oztopo handiak izan ditugu» azaldu du Azpirozek.

AUZITEGIEN AGINDUA

Hamaika urtez espe-roan egon ondotik, 2013ko azaroan abiatu zen 35/02 sumarioko epaiketa Espainiako Auzitegi Nazionalen eta 2014ko uztailen eman zuten epaia: 103 herriko tabernen itxiera agintzeaz gain, hogeila-gunentzako kartzela zigorra ere ebatzi zuten. Auzitegi Nazionaletik Auzitegi Gorenerako bi-dea hartu zuen kasuak eta 2015eko ekainaren 18an eman zuen Gorenak bere erabakiaren

JOSEBA AZPIROZ, TORREA ELKARTEKO PRESIDENTEA

«Jendeak bere sentitzen du Torrea; jasotzen ari garen babesean nabaritzen da hori»

Duela 13 urte hasitako auzia da. Nola bizi duzue?

Beti izan dugu garbi eskubide zibil eta politikoen aurkako eraso bat izan dela epaiketa hau (beste asko bezala) eta Espainiako Estatuak ez zuela inondik ere borroka legal hau galdu nahiko.

Zein da orain egoera?

Arlo juridikoari dagokionez Epaitegi Konstituzionalen helegitea aurkeztu dugu eta tramitera onartzen badute, suspentsioa eskatuko dugu. Suspentsioa onartu ezkerre epaia atera arte itxaron behar da. Eta ez badute onartzen, ez dakigu nola exekutatu duten epaia ez dagoelako aurrekaririk.

Zein ondorio izanen luke Torrea tabernaren itxierak elkartearentzat? Eta herriarentzat?

Herriko tabernen aurkako eraso hau, bakearen eta konponbidearen aurkako eraso bezala ulertzen dugu. Gainera, herria biziberritzen, herriko kultur dinamika indartzen ari den eta herriko kultur taldeen era-

kusleiho, herriko mugimendu desberdinen bitarteko edota herritarren elkargunea izan dena galduko genuke. Eta horretaz gain, ez da ahaztu behar itxierak bost langile langabezia utziko dituela.

Zein izan da herriak eman duen erantzuna?

Epaia jakin zen unetik herritar asko hurbildu da Torreara; elkarteari babesa emateko herriko talde eta pertsona ezagunen zerrenda jendetsua osatu zen; askok parte hartu dute egin diren mobilizazio eta batzarretan; erantzuna lantzeko hainbat lantalde egin dira... *Torrea Libre!* ekimenaren baitan ekitaldi asko ari dira antolatzen eta datozen asteetan ere ez dugu geldirik egoteko asmorik. Nabari da jendeak bere sentitzen duela Torrea.

Zer da egin litekeena?

Alde batetik, arlo juridikoa lantzen segituko dugu. Bestalde, epaitegietatik heldu zaizkigun epai injustu hauen aurrean salaketa eta desobedientzia landu behar ditugu.



berri. Agindua berretsiz: 101 lokal itxeko agindu eta auzipetuen-tzako zigorrak arindu zituzten.

Aurrekaririk ez duen kasua da eta horrek egoera «are gehiago zailtzen» duela aitortu

du Azpirozek. «Bost langile ari dira Torrean lanean eta goizero jaikitzen direnean, ez dakite egun horretan lanean etorrita zerekin egingen duten topo, bihar lanean segituko duten edo ez».

Jasotzen ari diren babesak aurrera jarraitzeko indarra ematen diela azpimarratu du. Horregatik aukera posible guztiak kontuan hartuta, lanean segitzeko asmoa dute Torrea berriro libre izan arte.



Nire txanda
Zuriñe ZUBILLAGA

Jantzi eta erantzi

Idatzi gabeko orri zuria gara jaiotakoan. Kutsatu gabeko kumea. Inozentea. Baina denborarekin inozentzia hori estali egiten dugu, aurrean dugun bidearen hotzetik babesteko. Lokatzez eta harriz beteriko bide horri ekiteko. Aurrez hainbestek hainbestetan ibilitako bide hori enegarren al-diz ibiltzeko. Aurreiritzi eta ideologien trapuekin jantzen gara orduan. Bigarren esku-ko arroparekin. Azalean bakarrik senti daitezkeen horietatik ezkutatuz. Baina bidean aurre egiten dugun heinean eta konturatu orduko, zuloarekin egiten dugu topo, eta erorketa horrek irauten duen denboran arropak erantzten zaizkigu. Eta biluzik geratzen gara han-kagora orduan. Inozente berriro ere. Umetan bezala. Babestuko gaituen eskuaren zain.

«Baina bidean aurre egiten dugun heinean eta konturatu orduko, zuloarekin egiten dugu topo, eta erorketa horrek irauten duen denboran arropak erantzten zaizkigu»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Oroime(i)nerako toki izenak

Gernika, Biescas, Nagasaki, Hiroshima, Txernobil, Fukushima... Zoritxarrez ezagun egin zituzten gertaerak baino lehen beraien historia eta beraien istorioak zituzten tokiak... Nafarroako Gobernuak errepideko tunelei buruz mane-jatzen dituen txostenak ikusiz eta katastrofista jarri nahi gabe, inoiz ez dadila orain dena baino eza-gunagoa egin Belate. (*Katastrofista!!!!*).

Nabarmentzekoak



Bautista GONÍ
100 urte bete ditu

Beintza-Labaiengoak mendea bete du urriaren 21ean. Armasko-bordan zortzi seme-alaba izan zituen Maria emazte zenarekin, baina mendeurrena Xillategian ospatu du familiarekin.



Miren IRIGOIEN
Lesakako botikaria

Gure inguruan internet bidez saldu dezakeen lehen farmazia da Miren Irigoienena. Medikuen errezeta behar ez duten sendagaiez gain, dermofarmaziokoak *online* saltzen ditu.



Iker VICENTE
Txapeldun Elizondoren ere

Nafarroako txapeldun gazteena izan ondotik, Euskal Herriko bigarren mailako aizkora txapelketa irabazi zuen Elizondoko ferietan. Ruben Saralegi Leitzako lehen-gusua bigarren izan zen.

Atzera begira → 2005-XI-17 / TTIPI-TTAPA 410 zk.



1940-1960ko Bortzirietako gazteak buruzko liburuak

Gerra ondoko belaunaldiaren bizi gogorraren testigantza bildu zuen duela hamar urte Rosa Arburuak, *1940-1960. Bortzirietako gazteak* izenburua zuen liburuan. Terranovan bakailoa arrantzatzen, Iparraldean eta Frantzia neskato, Ameriketara artzain, kontrabandoan... Bizimodua ateratzeko kanpora atera behar izan zuen belaunaldia izan zen Bortzirietan, «familia handiak ziren, gerra ondotik zen, denentzako ez zuen lurrik ematen, fabrikarik ez zen. Gazte hauek espabilatu ziren, langile porrokatuak ziren, ausartak eta bizia aitzinera nolabaitere atera behar zuten. Zeuden aukera eskasak aprobetxatu zituzten».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • **info@ttipi.eus**

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Aranxa Agirre **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Gofii, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebxa, Mattin Larraide, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administratzailea** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leiza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2015eko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	18€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	73€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua



Prentsatik bildutakoak



«Batez ere kremen salmentan berezitu ginen webgunean eta orain mediku erreze-tarik behar ez duten sendagaiak ere saltzen ditugu online. Salmenta beti botikari baten ardurapean egi-ten da eta interesa-tuak daudenak ahol-katzeko atal bat ere badaukagu. Eskaria egin eta 24 ordura sendagaia etxean dauka bezeroak, berme guztiekin».

Miren IRIGOIEN
Lesakako botikaria
D. VASCO • 2015.10.28



«Kondaira eta pertso-naia mitologikoe- inguratzen gaituen mundua esplikat- dute belaunaldiz belaunaldi, gaur egu- nera arte, baina nor- malean helduen hiz- kera erabiliz transmiti- tira. Horregatik, orain haurren hizkerara egokitu ditugu ipuinak eta marrazki ikusga- rrien bidez, kultura modu naturalean eta interesgarrian ailega- razi nahi dugu».

Izaskun ZUBIALDE
Zubietako idazlea
D. VASCO 2015.11.06

11 galdera labur

Nor da Beñat Oronoz?

Lesakako mutiko saltsero bat, kar- kar!

Zein mezu bidaltzen diozu burua- ri sokatiran hankak arrastaka do- azenean?

Kontu...

Nori askatuko zenioke soka ipur- diz lurrera erortzeko?

Bati baino gehiagori, ba- ta bertzearen giblean jarrita.

Sokatiran ona izateko non behar da indar gehien?

Hanketan gehien.

Zein garraibide nahiago duzu, au- toa edo zaldia?

Momentuaren arabera, biak di- tut gustuko.

Zer moduzkoa da zaldi haragia, osasu- nerako kaltegarria al da?

Hagitz ona da, pena

bat da hemen jateko ohitura au- nitz ez izatea, haragi hagitz osa- sungarria da eta.

Ferietako zer gustatzen zaizu gehien? Eta gutxien?

Goiz eguerdiko giro hori da gehien gustatzen zaidana. Eta gutxien ort- zegunarekin dela, ortziralea alda- tuko nituzke. Aldatzeari ez diot al- de txarrik ikusten eta ortziralean izateak onura aunitz izanen lituz- ke.

Eguneko edo gaueko besta nahiago?

Egunez hasi eta gabaz bukatu, kar-kar!

Astebururako planik idealena?

Bazkaldu eta pilota partidu on bat ikusi, adibidez.

Lesakako txokorik politena?

Nabaz auzoa.

Amets bat...

Amets gutti egitea hobel!



Beñat ORONOZ → Lesakako gaztea

saroha
gozotegia okindegia
pº de eztegarra 25 bajo 31780 bera (navarra) t.948 63 08 99 www.sarobe.net

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com

José I. Gonzalez Enguita
pinturak
barrukoak eta fatxadak
tel. 666 235 466

okaNa
HARATEGIA / URDAITEGIA
jose luis & coro
Kanttonberri 12 · BERA
Tfno/Fax: 948 630 018

Irakurleak mintzo

Andregai itsua

Xanti BEGIRISTAIN (Itzulpena)

Behin batean, bazen neskak bat bere burua gorrotatzen zuena, itsua zelako. Denei zien gorrotoa, bere senargai maitekorri izan ezik. Mutila hantxe egoten zen beti prest neskatzarentzat. Egun batean, zera esan zion neskatzak mutil lagunari:

-Mundua ikusi ahalko banu, nahiz eta egun bakar batean izan, hirekin ezkonduko nindukek. Halako batean, norbaitek bi begi eman zituen andregaiarentzat. Azkenean, bere begietako bendak kendu zituztenean, dena ikusi ahal izan zuen, baita bere senargaia ere. Honek haxe galdetu zion:

-Orain, mundu osoa ikusi ahal dunala eta, ezkondu nahi al dun nirekin?

Neskatilak bere senargaiari begiratu eta itsua zela ikusi zuen. Haren betazal itxien itxurak erasan egin zion. Berak ez zuen halakorik espero. Bizi arte horrela ikusteko ideiak, neskak mutil harekin ezkontzeko uko egitera eraman zuen. Senargaiak, begi-zuloetan malkoak zituela neskak utzi zuen eta egun batzuk geroago, honako ohar hau bidali zion: "Zaindu itzan ongi herorren begiak, maitea, zeren eta herorrenak izan baino lehen, neronenak izan baitziren".

Pertsona gutxi batzuek soilik gogoratzen dute nolakoa zen bizi-tza lehenago, eta egoera mingarriaren beti haien ondoan egon ziren lagunak.

Bizia opari bat da. Gaur hitz zakar bat esan baino lehen, oroit ezazu muturen bat. Janariaren zaporeaz kexatu baino lehen,

pentsa ezazu zer janik ez duen norbaitengan. Gaur, bizitzaz kexatu baino lehen, gogora ezazu behar baino lehenago guregandik joan zen norbait. Seme-alabez kexatu baino lehen, pentsa ezazu badaudela pertsonak haurrik eduki ezin dutenak. Norbaitekin eztabaidatu baino lehen zeuen etxea zikina dagoelako, gogora itzazu kaleetan bizi diren pertsonak. Ibilgailuz egiten dituzun distantziengatik protestatu baino lehen, oroit zaitez kilometro asko oinez egiten dituztenez. Eta, nekatuta zaudenean eta zerorren lanaz kexatzen zarenean, gogoraitzazu langabeak, ezgaitasunak dituztenak edota lan bat eduki nahiko luketena. Baina, hatzarekin erakutsi eta inor kondenatu baino lehen, gogora ezazu gutariko inor ez dagoela libre hanka-sartzeak egitetik. Pentsamendu etsigarriek lurrera bota nahi zaituztenean, jarri irribarre bat aurpegi-an, bizirik zaudelako.

Ohore zuri
euskal andrea!

Laura IGANTZI (Euskal Artzainak Ameriketara)

Dakizuen bezala, Euskal Artzainak Ameriketara elkarteari esker, Ameriketara joandako gure artzainen memoria berreskuratu eta zabaldu nahi dugu; zer ikasi haundia dugulako beraien bizipenei esker.

Baina, ez ditugu ahaztu nahi, zenbait kasuetan, beraien ondoan edo bakarka joan ziren emakumeak. Beraiek ere, beti bezala, itzalean, goxo goxo, ixil ixilik, ondoko belaualdiei gure



Bota bertsoa

Pantxo JUANIKOTENA (Banka) • Neurria: Zortziko handia

Ameriketara bizi egin duten emazteentzat

Bertso batzuek kantatzekotan tenorea da etorri, adiskide ta artzain mundua bildurik hemen elgarri. Gaurko eguna izan dadila guzientzat pozgarri. Agur ohore ta laudorio denoi ongi etorri.

Garai batean joan zinezten zuek Ameriketara. Gehienbat zinten gizon gazteak urrungo bortuetarat, baina baziren hemen ezkondu joanak leku horietarat, Euskal Herria bihotz minetan harat lana egiterat.

Emigrazio historioan dugu aipatzen gizona, baina guttitan entzuten da bere biziko laguna. Artzain bakoitzak bere buruan desiratzen baizuen, ez zaiken izan denontzat segur, emakume euskalduna.

Zonbaitendako indar haundia izan du amodioak, hemen utzirik familiako lagun eta auzokoak. Nahi nuke jakin nola zitzaizken aita eta aman malkoak, oroitzapenak daude saminak dakiena jaungoikoak.

hizkuntza, kultura, tradizioak, baloreak... eman zizketen. Jakina da kultura amaren bularretik transmititzen dela. Horregatik, transmisio hori eskertu nahian, aurten Beran ospatu dugun bestan merezitako aipamena egin diegu. Eskerrikasko gure kultura, joan

Emakumeak orainokoa behar dut orain aipatu. Hemengo bizimodua utzi, hangoa zintuen hartu. Segur naiz gogor izana dela, dezagun denek onartu, zuen burua Euskal Herriatik ez zen sekula aldatu.

Zuen haurrei Ameriketara transmititu euskaltasuna. Gure kultura, gure hizkuntza, guk dakigun nortasuna. Zer exenplua familietan, irakatsi duzuen! goraipatuz ni nago hemen naparra eta euskalduna.

Emazte hauen izenak daude hemen denon gogoetan. Omenaldi hau egin izan da, egun zuen ohoretan. Erregalua ez da sobera zuek han egin lanetan, Ama Birginak onar dezala Berako eliza huntan.

Gizon maiteak zorretan gaude nehor ez da dudatuko. Emazte hauek egin laguntza noiz ote da ordainduko? Tenorea da jino esku hala zuei hor zabaltzeko eta momento berean denek txalotuz guk eskertzeko.

zaretan edozein kanpoko herri-aldeetan, zuen seme alabei emateagatik. Horregatik, aipatutako besta horretan, Bankako Pantxo Juani-kotenak eskeini zizkien bertsoak zintzilikatu nahi ditut, merezitako errekonozimendu beza-la. Ohore zuri euskal andrea!

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.eusPosta: **Koskontako bidea, 07-1 31770 LESAKA**Tel.: **(0034) 948635458** Faxa: **(0034) 948635457**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

Azaroaren 26an egun osoko besta Lesakan

Urtero bezala, azaroko azken ortzegunean ospatuko dira Lesakako feriak. Aurten, hilaren 26an izanen da Lesakako Udalak antolatutako besta handia eta bertze behin, ganadu sail eta artisau postuek beteko dituzte karrikak. Beheko plazan artisauek egindako lanak ikusteko aukera izanen da goiz osoan; egurrekin egindako tresnak eta apaingarriak, artilezko jantziak... Herriko karriketan, berriz, egun osoan zeharazienda saila egonen da ikusgai, baita gozogileek egindako pasteltxoak eta bertzelako jakiak ere.

Herri kirol eta bertsolariak ere ez dira faltako Plaza Zaharrean. 11:00ak aldera hasiko dira aizkolariak lanean eta hauen erakustaldiaren ondotik, bertsolariak ariko dira kantuan. Azienda lehiaketako sari banaketa ere tenore honetan egingen dute.

Arratsaldean, 17:30ean, pilota partidak antolatu dituzte Udal Pilotalekuan. Eguna borobildu eta egitarauari amaiera emateko, gerriak mugitzeko aukera izanen da Plaza Zaharrean egingen den erromerian.



Bezperatik hasita

Azaroaren 25ean, ferien bezperan, herria girotzen hasteko Beti Gazte Elkar-teak urteroko ajoarriero lehiaketa antolatu du. Arratsaldeko 6etatik aitzinera kaxolak dantzaraziko dituzte Beheko Plazan. Ordu berean, Lesakako Trikitixa taldeak kalejira egingen du herriko karrikak alaitzeko.



asesoria
Emaizta
AHOLKULARITZA
Kontable · Fiskala · Laborala

ongi
pasa
feriak!

Eltzeta, 20 behea LESAKA | 948 638 077 | amaia@emaizta.eu

Dia %
LESACA LESAKAKO DIA

Ferietan
otordu goxoak
prestatzeko

Plaza Berria, 10 · 948 637 335

GOZOTEGIA
HAIZEA
BOLLERIA · KAFETEGIA

ongi pasa feriak!
T. 948 63 80 36 · Plaza Zaharra, 7 · LESAKA

LEIZA OSTATUA
"Antoiu"

Tel. 948 637 087
Egunero goizeko 6:00etatik irekia.

BOKATAK
RAZIOAK
EGUNEKO MENUAK
MENU BEREZIAK ENKARGUZ
PLATER KONBINATUAK

KASINO
OSTATUA - RESTAURANTE

feria alai eta
pozgarriak
izan ditzazuela

Plaza Zaharra · LESAKA · 948 63 72 87

ZOANSA

VW SEAT Audi HYUNDAI

MARKA GUZTIEN KONPONKETA
MEKANIKA · ELEKTRIZITATEA · TXAPA · PINTURA
Tel.: 948 62 55 55 · Fax: 948 62 55 05
e-mail: zoansa@zoansa.com
Banarta, 2 · Alkaiaga Ind. · 31789 LESAKA (Nafarroa)

LESAKAKO FERIAK



**IZARRA
OKINDEGIA**

ongi pasa feriak!

PLAZA ZAHARRA 12-13 31770 LESAKA NAFARROA
TEL: 948 637 855

IRU BIDE

Erretegia · Asador



Biurrana, 3
LESAKA
Tel:
948 637 127

Lesaka - Bera
AUTŌESKOLA



Eztegara, 12 · BERA Iturrunzubiko plaza, 8 · LESAKA
948 630 652 948 637 870

ESKAINZA BEREZIAK

· Gidabaimen guztiak
· Gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera



TALLERES FRAIN

LESAKA · Tel.: 948 637 525

Ongi pasa feriak!



A, B eta C
motako
GASOLIOA
ETXERA
24
ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

www.kattagorria.com



Behoko plaza, 10 LESAKA · 948 627 514

**Baserritar jantzien KOLEKZIO BERRIA
ESKAINZA HANDIA!!**



• **FERIETAN,**
EGUN OSOA IREKIA
eta %10eko DESKONTUA



Bortzirietako azienda lehiaketa

Lesakako ferietan Bortzirietako azienda lehiaketa ospatzen da urtero eta aurtengoan ere inguruko abelburu ederrenak plazaratuko dituzte. Goizeko 11 etarako Plaza Zaharrean eta inguruko karriketan ikusgai eta lehiaketako sariren bat irabazteko prest egonen dira betabereak, zaldiak, pottokak, monturakoak, poniak, ahariak eta zatalberek. Adituak eta arituak, bilduko dira beraien bueltan eta traturako aukera ere izanen da.

Arrakasta eta parte hartze handia izaten du urtero lehiaketak. Iazko ferietan errate baterako, 141 azienda aurkeztu zituzten. Horietatik 81 zatalberek ziren, tartean pottokak eta monturakoak, 56 behi eta 4 ahari.

Sari banaketa eguerdian

Goiz osoan zehar ikusgai egon ondotik sari banaketaren ordua ailegatuko da. Bortzirietako azienda hoberenen jabeak eguerdi partean erabaki eta sarituak izanen dira.

Azienda lehiaketan kategoria desberdinetan bereizten dira animaliak eta kategoria bakoitzak bere sariak izaten ditu. Hortaz, aurkeztutako haragitarako behi, Suitza eta zaldi aziendak maila desberdinetan banatzen dira eta talde bakoitzetik hiru hoberenek jasotzen dute saria. Bertzalde, azken lau urteetan bezalaxe pottoka, montura, poni eta ahari onenek



ere saria jasoko dute. Kasu honetan, kategoria bakoitzeko

onenak bakarrik jasoko du aipamena.

JULIO SALINAS MAEZTU- Albaitaria

«Feriek xarma guztia galduko dute animaliak falta diren egunean»

Lesakan bizi arren Etaiun jaio zen eta bertakoa sentitzen da oraindik ere. «Ikasketak bukatu eta Lesakara etorri nintzen duela 33 urte, baina ni Etaiuko naiz». Ferietako ezinbertzeko osagaia da Julio, «32 urte» daramatza eta azienda lehiaketako epaile moduan. «Egun honetan sortzen den giroa» da gehien gustatzen zaiona eta aunitz gozatzen du. «Lesakak xarma berezia» duela aitortu digu.

«Animaliak baloratzeko garaian lehen aukeraketa bat egiten dut kandidatu izan daitezkeenekin eta gero detaile txikiagoetan fijaszen hasten naiz». Hasieran jasotzen duen inpresiotik hasten du aukeraketa eta horretarako «itxura hagitz inportantea da». Edertasuna zaindu behar dela dio albaitari lesakarrak. Nahiz eta sekulako zaldia izan, «orraztu gabe edo zikina aurkezten bada, lehenengo begiratuan ez nau erakarriko». Parte hartzaileei behin eta berriz errepikatzen die: «aurkezteko modua hagitz garrantzitsua da».

Aurre aukeraketa egin ondotik detaile txikiei erreparatzen die «sendotasunari, adibidez». Garrantzitsua da «ongi osatutako animalia izatea, atzealdea eroria ez edukitzea edo atzetik hagitz estua ez izatea...».

Nekazaritzak gerorik baduen galdetuta nahiko ilun ikusten du etorkizuna. «Baserriak ustiategi txikiak dira eta dauzkagun aukerak ez dira handiak, baina 2-3 baserriar elkartuta baldintza hobeak lortu litezke». Komertzioetan eta fabriketan lan egiteko aukera izanik, «hagitz zaila izan da inork oraingo nekazariei erreleboa hartzea». Juliok ez du dudarik, «lan mota hau gustatzen bazaizu aurrera, nahiz eta milioiak ez irabazi, zu zara zure nagusia eta hori sekulako askatasuna da. Bizitza hagitz luzea da eta lantegian 8 orduz jasaten ez duzun norbaitekin egon behar baduzu egunero... hori bai dela gogorra». Eta berte gauza bat argi du, «ferietan animaliak falta diren egunean, xarma guztia galduko da».

Ferietan animaliak «plazan eta lotuta egoten dira». Hau ez da beraien eguneroko giroa eta «egun honetan hoberena lasai uztea da, ez agobiatzea». Behiek adibidez «beraien jabeekin bakarrik izaten dute kontaktua eta behiek esperientziarik ez baduzu eta bortitzegi hurbiltzen bazara, agian ostiko bat emanen dizute». Animalia bat ikutzeko orduan «lehenengo solastu egin behar zaio eta nola erreakzionatzen duen ikusi».

«Ferietan benetan disfrutatu ahal izateko eguraldi ona egitea hagitz garrantzitsua da»

Hala ere, «nik egondako urte guztietan ez dut animaliekin arazorik bizi».

Aurten ere bere begirada zorrotzarekin arituko da Julio Bortzietako ganadua aztertzen.



IÑAKI JANARIDENDA

- ONGI PASA FERIAK -



Arretxea, 12 • LESAKA • 948 638 287

ONGI PASA FERIETAN!

Bortzietak
IMPRESA - HOPISTEGIA

948 631 521

material guztietan inprimatzen dugu
hamisetak / oparitzeko artikulua



Ongi pasa feriak!!

T. 948 638 126
LESAKA

ASTEBURUETAN KARTAKO BAZKARIK ETA
AFARIK ENKARGUZ
Pintxoak · bokatak · plater konbinatuak

TRANSPORTES IRIGOYEN

ONGI PASA FERIAK!

629 592 215 · Biurruna auzoa, 1 · LESAKA

KOXKONTA
JATETXEA | LESAKA



FERIETAKO MENUA

30€
BEZ
Barne

Etxeako aperitiboa

Itsaski-salpikioia

Ajoarriero-kurruskaria otarrainskekin

Itsaskiz betetako beiera

Legatza ondoz beteta bere saltsarekin

edo

Entrekota hornigaiarekin

Postrea, ardoa, ura
eta kafea

Ongi pasa feriak!

T. 948 627 519

BAZTAN-BIDASOA

GIZARTEA → AUTISMOA DUTEN PERTSONENDAKO

224 piktograma jarri ditu Denok Bat Federazioak

4 eta 8 urte arteko umeen begien parean jarri behar dira

eta autismoa duten pertsonen laguntzeko piktogramak jarri dituzte beraien establezimenduetan.

Piktogramak gauzak eta ekintzak modu sinplean adierazten dituzten marrazkiak dira eta edozein hizkuntzatarako baliagarriak dira, ez baitituzte hitzak adierazten, errealitateak baizik. Piktograma hauei esker, autismoa duten pertsonen eguneroko ekintzak errazago uler-



UTZITAKO ARGAZKIA

Denok Bat Federazioko eta ANA elkarteak aurkezpenean.

tzen dituzte.

Urriaren 29an, Denok Bat Federazioko ki-deek jaso zituzten 224 piktogramak ANA elkar-teko Amaya Ariz presi-dentearen eskutik, eta gisa honetara bat egin dute duela bi urte elkar-te honek martxan jarri zuen *Uler ezazu zure*

herria piktogramen bi-dez kanpainarekin. Gaugerero 5.000 toki sei-nalizatu dituzte Nafa-rrora osoan, autismoa dutenei erraztasunak emateaz gain, gaur egungo 68 jaio berrie-tatik bati eragiten dion sindrome hau ezagu-tzera emanez.

Denok Bat elkartearen izenean, Deñe Abui-n presidentea, Helena Santesteban presiden-te ordeza, Isabel Gonza-lez diruzaina eta Lour-des Andueza bokala izan ziren ekitaldian, ANAko Amaya Ariz eta Paula Rodriguezekin batera.

TTIPI-TTAPA

Baztan, Bera, Doneztebe eta Lesakako 224 komertzio eta zer-bitzu biltzen dituen Denok Bat Federazioak bat egin du ANA elkarte (Nafarroako Autismoaren Elkartea) gauzatzen ari den kanpainarekin

PUNTAS

Barrio Behobia S/N
20.305 Iruñ
943.63.82.24

24 H

GIZARTEA → ZIGORRAK IRAGARRI DITU

Elkartea ez dela egoki erabiltzen jakinarazi du Gure Txokoak

Bazkide izan gabe elkartean sartzea «normaltzat» hartzen dela salatu du

TTIPI-TTAPA

lamoteneako elkar-te gastronomikoari ematen zaion erabilera desegokiagatik bere ezin-egona azaldu du Berako Gure Txokoa elkar-teak.

Alde batetik, oraindik ere ostatuan falta aunitz daudela jakinarazi du Gure Txokoako zuzendaritza batzordeak, eta 2011ko otsailaren 18ko batzarrean erabaki zen bezala, ordaindu gabeko horien arduraduna agertu ezean, egun horretako erabiltzaileen artean banatuko da.

Bertzalde, elkartea hagitik zikin eta bildu gabe gelditutako aldiak aunitz dira, berdin bazkari, merendu edo afari baten ondotik. Eta batzordeari gehien arduratzen dion kontua zera da: Beran bizi den jendea bazkide izan gabe elkartean sartzen dela. Hasieran kasu zehatzen bat izango zela uste zuen batzordeak, baina ikusi du jendeak «normaltzat» hartu duela jokatibide hau. Gure Txokoako batzordeak dioenez, «ez dugu inolako

argudio posiblerik uler-tzen estatutuen 10. artikulua ez betetzeko. Horregatik, hemendik aitzinera, elkartearen erabilera egokiaren inguruko arauak puska-tzen dituen bazkidea zigortua izango da».

Gure Txokoa, bere mantenua behar duen eta gastu aunitz dituen lamotenea baino aunitzez gehiago dela oitartarazi dute: Gure Txokoa futbola, pilota, dantza, txirrindularitza, areto futbola, Lurraren Eguna, Lizuniagako igoera, margo lehiaketa...da «eta aktibitate hauek soilik jende aunitzen lan eskerga eta altruistaren bitartez egin daitezke. Guzti hau egitea soilik bazkideek ordaintzen dituzten kuotek baimentzen dute».

AZAROAREN 22AN

Bigarren eskuko merkatu ttikia antolatu du aurtien ere Labiaga ikastolak

TTIPI-TTAPA

Labiaga Ikastolako Guraso Taldeak bultzatuta, bigarren eskuko merkatu txikia antolatuko dute azaroaren 22an (igandea), 09:00etatik 15:00etara kiroldegia-aren aitzineko eremuan. Eguraldiak lagunduko ez balu, Altxateko frontoian egingen litzateke.

Ikastolaren izenean postu bat jartzeko asmoa ere badute. Horretarako, materiala bildu nahi dute. Merkatu honetan edozeinek parte hartzen ahal du. Horretarako, bako-

itzak bere postua jarri beharko du (mahaia eta behar duen guziarekin). Postua jartzeagatik, Ikastolari 10 euro ordaindu beharko zaizkio. Norberaren baitan egonen da postua bakarka edo bertze norbaitekin osatzea.

Postua jartzeko interesa dutenek, Ikastolako idazkaritzara deitu behar dute, izena emateko.

Merkatuan bigarren eskuko materiala bakarrik saltzen ahal da (jolasak, arropa, liburuak, etxeko tresnak, altzariak...). Materialaren prezioa norberak jarriko du.




ARGAZKIAK: A. AROTZENA

29. Lurraren Eguna jendetza bildu zuen karriketan

Eguraldi goxoa lagun, jendetza bildu zen urriaren 25ean, 29. aldiz Lurraren Eguna. Ehun bat eskulangileren eta elikadura produktuen 30 postu baino gehiago hedatu ziren. Gazta lehiaketan hamaika ale aurkeztu ziren eta horien artean, iaz bezala, Garmendiko bordako Sokorro Almandozek eraman zuen lehen saria eta Arantzako Seroren bordako Margarita Madariagak bigarrena. Sagar-do lehiaketara, berriz, 16 botila aurkeztu zituzten eta horien artean, Iñaki Pika-beak aurkeztutakoak eskuratu zuen lehen saria. 75 euroko bigarren saria Maleteneko Alejandro Altxugurennek eraman zuen. Bezperako barazkiopil lehiaketa Juan Luis Irazoki, Patxi Pikabea eta Pollok irabazi zuten, 14 talderen artean.

Amador Lanzen liburua

Amador Lanz Telle-txeak *Pintura sobre el Bidasoa* liburua argitaratu berri du, bere margolanak ez ezik, gai ezberdinei (Bidasoa ibaiaren egoerari buruzko kezak, pasadizoak...) buruzko gogoeta idatziak biltzen dituen.



FLASH

Ipuin kontalaria

Pello Añorgak *Denak ezberdinak*. Bakoitza beharrezko aniztasunaren inguruko kontaketa egingen du azaroaren 20an, 17:30ean liburutegian, 6-12 urtekoek zuzendua.

Haurrentzako dantza ikuskizuna

Fueradeleje dantza konpainiak *Nor da otsoaren beldur* dantza ikuskizuna eskainiko du azaroaren 15ean, igandean 17:30ean Kultur Etxean. Sarrera: 3 euro.

Santa Zezilia

Azaroaren 23an, 18:00etan Musika Eskolan kontzertua eskainiko dute. Hilaren 21ean, Bera Kantari eta Tenpora taldearen kontzertua 20:00etan Kultur Etxean (6 euro).

LESAKA

GIZARTEA → AZAROAREN 28AN

4.000 euroko balioa duten sariak banatuko dituzte tonbolan

Lesakako Zerbitzuen Elkarteak komertzio eta zerbitzuetan egiten diren erosketekin jasotzen dira txartelak

Aitor AROTZENA

Azken bizpahiru urtetako arrakasta ikusita, aurten ere tonbola antolatu du Lesakako Zerbitzuen Elkarteak. Elkarteak dendetan egindako erosketen truke banatutako txartelekin sariak eskuratu ahal izateko, azaroaren 28an aterako dituzte zenbakiak, 19:00etatik aitzinera plazan. Pintxoak eta edariak ere banatuko dira, giroa goxatzeko.

Zerbitzuen Elkarteak 10.000 boleto banatu ditu eta gisa guztietako sariak banatuko dituzte, 4.000 euroko balioa dutenak. Sariak Plaza Zaharreko Mendegia harategiaren ondoko lokalean daude ikusgai. Hori bai, saria jaso nahi duenak plazan egon beharko du egun horretan.

Haurraren Eguna

Irain Guraso elkarteak eta Tantirumairu ikastolako Guraso Elkarte-

ak udalaren laguntzaz antolatuta Haurraren Eguna ospatuko da azaroaren 14an. Larunbatean 11:00etatik 13:00etara rokdromoan, adin ezberdinetako haurrei zuzendutako jolasak eta gurpildun zezenak izanen dira Harriondoa inguruan. Arratsaldeko 5etan berendua plazan eta 5:30etik 7etara, DJ Porrurekin kanta eta dantza egiteko aukera izanen da. Euria eginen balu, ekitaldi guztiak frontoian eginen lirateke.

Edurne Pasaban hizlari

Beti Gazteren 75. urteurreneko ekitaldien baitan, *Pirineotatik Himalaiara* hitzaldi-mahaingurua eskainiko du Edurne Pasaban mendizaleak azaroaren 13an, ortziralean 20:00etan Harriondoa Kultur Etxeko Txokobiko aretoan.

Santa Zezilia eguna

Musikarien zaindariaren egunaren inguruan emanaldiak izanen dira aurten ere. Azaroaren 18an, heldu den asteazkenean 18:00etan Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute Harriondoa. Azaroaren 20 eta 21ean, berriz, karrikaz karrika emanaldiak eskainiko dituzte musika talde ezberdinek.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Manolo Arozena eta Bittor Elizagoien omendu ditu Bertso Eskolak

1990ko urrian sortu zen Bortzirietako bertso eskola. Urtemugaren aitzaki horrekin hainbat ekitaldi burutu zituzten Lesakan urriaren 24an, *Jada mende laurden... kantari bizitzea zer den!* izenburupean. Protagonistentzako ezustean, omenaldi hunkigarria ere eskaini zitzaion Manolo Arozena eta Bittor Elizagoien-i, duela 25 urte Bortzirietako bertso eskola sortu zutenei. Harriondoa Kultur Etxeko atarian bildu ziren ikasle eta ikasle ohiak argazkia ateratzeko. Aitzinetik hamaiketako egin zuten eta ondotik ekitaldi berezia, dantza, musika eta bertsoak uztartuz. 80 bat lagun bildu ziren Linddurrenborda sagardotegiko bazkarian. Aitzinera begira, azaroaren 21ean, 20:00etan gaztain jatea antolatu du bertso eskolak Basurde elkarteak, Jon Maia eta Igor Elortza bertsolariekin, Josu Goikoetxea gidari dutela.



ARGAZKIA: RAFAEL ENETERREAGA

San Fermin Elkartearen Eguna

San Fermin jubilatutako Elkartearen Eguna ospatu zuten urriaren 23an. Aurten ere, diamantezko eta urrezko ezteiak ospatzen dituzten bikoteei eta 85 urte betetzen dituzten bazkideei omenaldia eskaini zaie. Zehazki, ospakizunean izan ziren Diamantezko Ezteiak ospatzen dituzten Pedro Larralde Gaztelumendi eta Maria Jesus Zubieta Tapia; Urrezko Ezteiak bete dituzten Jose Francisco Ubiria Portu eta Josefa Andueza Sarratea; eta 85 urte egin dituzten Jose Agirretxe Ezama, Maria Luisa Telletxea Viñas, Consuelo Aldaraborda Iparragirre eta Teresa Larralde Gaztelumendi. Mezan, sorpresak izan zituzten eta Diamantezko Ezteiak betetzen dituzten Pedro Larralde eta Maria Jesus Zubieta bi bilobek, Peio Fontan Larralde eta Olatz Rojo Larralde, musika-pieza bat jo zieten. Plazako Aurrekua ere berezia izan zen, Urrezko Ezteiak betetzen dituzten Jose Francisco Ubiria eta Josefa Anduezen seme nagusiak, urtetan ezpatadantzarien aitzinesku izandako Kotteka Ubiriak dantzatu baitzuen.

Joan den larunbatean Giltzarri abesbatzak kontzertua eskaini zuen Harriondoa, Beti Gazteren 75. urteurrenaren baitan.

Ba al zenekien

Azaroaren 15ean haurdunaldia, erditze, erditze ondorena, haziera eta hezkuntzaren II. Muxume Feria eta hilaren 21ean txakurren heziketari buruzko tailerra antolatu dituela Dasyak

GIZARTEA → LEHENBAILEHEN IREKITZEKO ASMOA

Herriko Ostatua errentan hartu dute berriz ere

Bizpahiru hilabete itxita egon ondoren laster martxan jarriko dute Axun Maia eta Bittor Jauregik

Irune ELIZAGOIEN

Etxalarako Axun Maia eta Amaiurko Bittor Jauregik hartu dute errentan Herriko ostatua. Orain berritze eta txukuntze lanetan ari dira baina lehenbailehen irekitzeko asmoa dute.

Bortzirietako binakako pilota txapelketa

Urriaren 28an hasi ziren Bortzirietako binakako esku pilota txapelketako partidak. Etxalarako 4 bikote ariko dira eta herrian partiduak asteazkenetan izanen dira. Kimuak alebin mailan bikote bakarra dago; Joseba Telletxea eta

Asier Martin. Infantil mailan, berriz, 3 bikote daude; Unai Arburua eta Markel Etxarte, Koldo Bizente eta Xabier Telletxea eta Aiert Irigoien eta Asier Latorre (Bera).

Kontzertua

Santa Xexili eguna ospatzeko, elizan kontzertua eskainiko du Donztebeko Mendi abesbatzak azaroaren 21ean 20:00etan. Eskolako LHko 3.mailatik 6.maila arteko zenbait ikaslek abesbatzarekin partehartuko dute, musika tresnen laguntzaz lau abesti kantatuz: *Only you*, *Haurrak lotarazteko soinuak*, *Xalbadorren heriotzean* eta *Guantanamera*.

Mus eta partxis txapelketak

Larraburua jubilatuen elkartearen urtero bezala mus eta partxis txapelketa antolatu dute. Azaroaren 8an hasita, igandero jokatu ditzuten partidak.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Hilerria lorez beterik

Santu guztien egunean, eguraldi ederra lagun, bisitari aunitz hurbildu zen kanposantura.



ARGAZKIAK: MATTIN ZELAIETA

Elizako kanpandorrean erle kabi handia

Udazkenean liztor asiatiako hainbat kabi agertu badira ere, oraingoan elizako kanpandorrean dagoen kabia erleena da.

Martiko
Pol Zalain, s/n.
31780 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com

Ahatekietan adituak eta arituak

DENDA ORDUTEGIA:
astelehenetik
ortziralerara
08:00etatik
17:00etara

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
Tel. 943 467 244 • 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@bordako.com

ZUBIONDO
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika
BERA NAFARROA

Tel: 948 645 474

aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

ARANTZA

KULTURA → LARUNBAT ILUNABARREAN

Hauspolariek taldeak emanaldia eskainiko du

Laraburuko bordako gazta eta Oskozeneko aharia garaile Baserritarren Egunean

Nerea ALTZURI

Baztango Hauspolariek taldeak emanaldia eskainiko du larunbat ilunabarrean eskolako gimnasioan. Jaione Elizagoien eta Izaskun Iparragirre elizondarrek eta Iruñe Etxeberria arraioztarrak osatutako taldea da. Jaione gainera, Arantzako eskolan andereño da. Izaskunek, aita arantzarra du, Migel Iparragirre akordiolariaren alaba baita... Oraingoan, hiruek kantaldi saio polita eskainiko dute Udazkeneko Kultur Egunak borobiltzeko.

Urria eta azaroa batzen zituen asteburuan egin ziren bertze ekitaldiak. Azaroaren 1ean Ekaitza elkarteak antolatutako 20. Baserritarren Eguna ospatu zen.

Lehiaketara aurkeztutako zortzi gazten artean Laraburukobordakoa nagusitu zen, Serorinbordako Margari Mada-riagak jaso zuen bigarren saria (Berako Lurraren Egunean bezalaxe) eta Eguzkialdeko Simonenbordak hirugarrena.

- Zure etxea Papi eta Termitaz babestu.
- Fatsadak (blokeak eta etxeak...)
- Barnealdeak
- Barnizatzeak

LESAKA | 948 637 556 | 686 805 435
pinturaslesaka@hotmail.com

JOSE AGERRE
pinturak



PINTURA LANAK OROKORREAN

Kanpo eta barneko pintura
Barnizatze eta lakatzeak
Parket Flotatzaila jartzen dugu

610 221 528
BERRIZAUN



PATXI ZAMORANO

Leitzako bidea 31740 DONEZTEBE
948 450 734 | 606 377 424
info@patxizamorano.com


PINTURA

Paretak apainduta,
xarma eta lilura sortu

Pinturak edozein espazio itxuraldatzeko gaitasuna du;
dore, garbi eta distiratsu utziaz

Kolorea izan liteke dekorazioaren abiapuntua.

Koloreak pertsonalitatea, ikutu berezia, eman diezaioke hutsik dagoen gela bati; espazio ilun bati argitasuna eman eta zaharkitua zirudienari berri itxura. Obra eta gastu handiegirik gabe, pintura litro batzuk aski dira etxebizitza eraldatzeko.



Espazio bakoitzaren funtzioa eta norberaren gustuen arteko oreka lortzea da gakoa

Garrantzitsua da espazio bakoitzaren funtzioa eta norberaren gustuen arteko oreka lortzea. Koloreek, gainera, emozioekin lotura estua dute eta horregatik, aukeraketa ongi egitea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Koloreen psikologiaz hitz egiten dute adituek eta kontuan hartu behar da gorri, berde, zuri edo beltzak, sentrazio eta giro desberdinak sorrarazten dituztela. Etxebizitzaren estilo orokorrak ere kolorea aukeratzeko orduan ildo batzuk zehazten ditu, estilo bakoitzarekin lotzen den kolore paleta eta bakoitzak erabiltzen dituen estanzazioak hauek dira:

Klasikoa:
Magenta, berdea, gorri-iluna, marroia eta lore, fruita eta lerroak.

Etnikoa:
Kolore beroen aldeko apustua egiten dute: gorrixka, laranja, horiak...

Pop Art:
Abangardiako koloreak, bixiak, estanpatu originalekin, berdea, arrosa...

Minimalista:
Kolore neutroak, oinarrikoak, zuria, beltza, grisa sepia...

Erromantikoa:
Kolore pastelak, loreak eta paisaiak

Zen:
Argiari eusten dioten kolore naturalak, lur koloreak, marfilak....

BARNIZADURAK
· Naturalak
· Tindatuak
· Zahar itxurakoak
· Suaren kontrakoak

LAKATUAK
· Horitzearen kontrakoak
· Patinatuak
· Testuratuak
· Mate-distira

ATEETAN,
ARMAIRUETAN,
ZOKALOETAN...

KANPOALDEKO UR-BERNIZAK
mota guztietako egurretan eta kalitate haundieneko materialekin leihoetan, leiho-ateetan, balkoietan, teilatu-hegaletan...

BARNE ETA KANPO-DEKORAZIOA:
Etxebizitzak, lokalak, bulegoak, auzo-komunitateak, fatxadak...

AKABERA RUSTIKOAK, LAUSODURAK, ESTALDURAK, PATINAK, EFEKTU BEREZIAK...

Garai batean kolore askorekin margotzen ziren etxeak, gela bat urdin, bertzea laranja... eta oraindik joera horren alde egiten duenik bada. Espazio bakoitzari, kolore bat ematen zaio, betetzen duen funtzioaren arabera. Gehienetan baina, kolore bakarren alde egiten da. Aurten txuri urratua, kanela kolorea eta lur kolore argiak daude modan. Etxebizitza guztia kolore bakararekin lotzen da, tonu desberdinak erabiltzea oreka bilatuz.

Pintura erabili nahi ez dutenentzat, paper margotua irtenbide aproposa da oso, hormetan efektuak sortu, espazio bati argitasun gehiago eman edo egoera txarrean dauden hormei itxura berria emateko aukera eskaintzen dutelako. Kalitate handiko materialekin egiten dituzte eta egun, sukalde eta bainugeletan jartzeko aukera ere ematen dute hondatzeko arriskurik gabe. Koloreei dagokienez tonu neutroak dira oinarri-oinarrrian erabiltzen direnak (grisa, beixa eta baita txuria ere) eta ondoren kolore deigarriagoak dituzten konposizioekin apaintzen dira. Paper margotuarekin batera, biniloak ere modan daude. Erraz jarri eta kendu litezke eta aldian aldian diseinuak aldatzea maite dutenentzat aukera egokiena da. Mota guztietakoak aurki litezke, abstraktuak, naturako elementuak irudikatzen dituztenak, hitzez osatuak, haurren logelarako aproposak... eta merkataru daudenak gustuko ez badituzue, badaude, norberak nahi dituen diseinuak binilo bihurtzen dituzten enpresak ere.



Pinturas Iñaki Alzuyet margoak

Tel: (0034) 659 862 417
31711 URDAZUBI (Na)

- Fatxaden zaharberritzea
- Barne-dekorazioa
- Isolamenduak pladurrean
- Pintura Industrialak
- Egurra eta altzarien lakatze eta bernizatzea kabinan

pinturasalzuyet@yahoo.es



Inzakardi Pinturak

- PINTURA LANAK OROKORREAN -

Eduardo Oyarzabal m. 630 511 488 Inzakardi, 10 DONEZTEBE/SANTESTEBAN



PINTURA | PLADURRA | ALIKATATUAK

699 98 38 66

Jose Mª Iribarren
Doneztebe 31740




Pinturas Pikabea Molinera

Prezio eskaintza zabala
esmalte eta pintura plastikoetan
2.000 kolore desberdin lortzen dituen makina


Aurrekontuak
konpromisorik gabe,
fatxada, komunitate eta etxebizitza
partikularretan

Zalain auzoa (Zalain Transformados fabrikaren parean) • BERA
T. 948 630 240 • M. 627 622 333

MIKEL UBIRIA
eskabazioak
garraioak



Blurrana 8 - 31770 Lesaka
☎ 948 637 302 ☎ 971 6322 ☎ 608 779 641
info@excavacionesubiria.com





analak, apezetxea eskabazioak

eskollerak

Idoleta, 71 - 1.A
31754 GOIZUETA - Nafarroa
Tel. 650 20 16 27
699 63 24 80
www.apezetxeanaiaak.com
excavaciones@apezetxeanaiaak.com

kanalizazioak mini-retroak

BAGOAK
LORATEGIA-EGURRA



Errekako karrika 28 - 31700 ELBETE
T. (+34) 678 128 996 - bagoak@outlook.es



“TELLETXEA”
Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -

John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
LESAKA • T. 619 418 683
johnnetellexea@hotmail.com • www.telletxealorezaintza.com



TRANSTXAKAIN
TRANSTXAKAIN, s.l.
JESUS ARAMBURU ALZUGARAY

Aurreztu!






ERAIKUNTZA-HONDAKINEN KUDEATZAILEA (Nafarroako Gobernuaren baimena)

KONTENEDOREEN ALOKAIRUA 1m³-tik 8m³-ra

MOTA GUZTIETAKO IBILGAILUAK

- Kamioia 15mko garabiarekin
- Kamioia 32mko garabiarekin
- Kaja baskulatzailerekin
- Zisternarekin: Putzu septikoak | Tuberietako ataskoak kentzea | Ura lekuz aldatzea

Otsango Ind. 14 • LESAKA • transtxakain@yahoo.es
T. 669 840 198 | 948 638 052 • F. 948 627 578

ZURGINAK

Zura, eraikuntzarako material bikaina

Dentsitate baxua duenez egiturak pisu gutxi hartzen du, material berriztagarria da eta isolatzaile ona

Euskal Herrian etxeak eraikitzeke orduan, zuraren erabilera hazi bada ere, altzairua eta hormigoia dira nagusi oraindik. Baina, baliteke joera aldatzea, zuraren erabilerak hainbat abantaila ekartzen dituelako eraikuntzaren alorrera. Hori ondorioztatu du eraikuntzarako egiturak eta materialak ikertzen hamar urte daramatzan Euskal Herriko Unibertsitateko Ikerketa talde batek.




Material berriztagarria da eta fabrikazio-prozesuan energia gutxi kontsumitzen da

Zura izan da azken ikerketaren oinarria eta egindako lanak erakutsi du material honek abantaila ugari eskaintzen dituela eraikuntza-lanetarako. Egiturarako beste material batzuk baino erresistentzia txikiagoa izan arren, energia-eraginkortasun hobea du eta ondorioz, isolatzaile hobea da. Horrez gain, arina da oso; dentsitate baxuagoa duenez pisu txikiagoa hartzen du egiturak. Material berriztagarria da gainera eta fabrikazio-prozesuan ere energia gutxi kontsumitzen du.

Arrazoi kulturalak tarteko, jendeak errezeloa dio zurezko etxeetan bizitzeari: material organikoa da, ez da hormigoia eta altzairua bezain gogorra, su har deza... diote aunitzek. Beldur horiei aurre egiteko baina egun badaude egurraren iraunkortasuna areagotzen duten tratamendu oso onak eta suaren aurkako portaerari dagokionez, Eraikuntzaren Kode Teknikoaren arauak zorrotzasunez zehazten du nola diseinatu behar den egitura.

Eraikuntza jasangarria izan dadin, ezinbertzekoa da: gizarte-erantzukizuna eta ekonomiaren garapena ere kontuan izatea. Etxe bat egiteko zura Australiatik ekartzen bada, garraioak izugarri areagotzen ditu CO2-aren emisioak eta ez da hemen lanposturik eta aberastasunik sortzen.



Carpintería
Lizasoain, S.L.

ERREFORMAK OROKORREAN
LEIHOAK · ATEAK · ESKAILERAK
ARMAIRUAK · SUKALDEAK · PERSIANAK

948452077 · Zaldubia ind. · 31730 IRURITA
carpinteria.lizasoain@gmail.com

JOXEMI BENGOTXEA S.L.

TEILATUAK | FATXADAK
EGURREZKO ESTRUKTURAK
ESKAILERAK | LEIHOAK | KONTRALEIHOAK

Alkerdi - 4. ind. - 103 partzela 31711 Urdazubi
T. 660 501 584 | joxemibengotxea@yahoo.es

Zurgin lanak orokorrean

Luis Ibarra

636 701 204

690 388 263
luisibarra86@hotmail.es
Salbatore karrika, 28 · ARANTZA

Armairua
Leihoa
Atea
Teilatu berriak
Parke flotantea
Tarima
Teilatu zaharberritzeak

ZURGINA - EBANISTA

Beorlegi

Altzariak neurritan eginak
Armairu enpotratuak
Zolak
Ateak
Sukaldeak
Komertzioetarako altzariak

www.carpinteriabeorlegi.wordpress.com
Tel. Móvil: 657 799 688
Amalur Etxea - DONAMARIA

OKILA
zurgindegia

- tarimak, leihoak, ateak, eskailerak...
- obretako lanak orokorrean

Lander Sein
Mikel Anburua

bai
nuskara
zerbitzua
euskaraz


607 88 39 68 - lander@okila.eu
Piedadeko auzoa, 32 - IGANTZI

Patxi Jaurena

ZURGIN LANAK OROKORREAN
MENUISIER - CHARPENTIER

628 550 490 - UROAZUBINA
ursunea@gmail.com

Egurra beti da dotoreziaren sinonimo, baita diseinu apurtzaileenetan ere



MIKEL MUTUBERRIA
zurgindegia

Zurgin lanak orokorrean


Aparan Industrialdea - 31740 DONEZTEBE
Tel. 669 939 057
mutuberriazurgindegia@hotmail.es

MADERAS SANTESTEBAN

Mendi lanak (Pinuak erosten dira)
Bigak • Montaje obra
Teilaturako egiturak
Izer, harizta eta douglaszkoak edo laminatuak
Osagarriak • Autoklabe tratamendua

www.maderasantesteban.com

Arrazo parajea | ZUBIETA | 948 45 08 77
info@maderasantesteban.com



Juanotena
zurgindegia

Ateak • Eskailerak • Leihoak • Teilatuak
Zolak • Kontraleihoak • Armairu enpotratuak

www.juanotena.com

Leitza Errep. 35 • DONEZTEBE • T. 948 45 02 11
info@juanotena.com

ZURLAN
ZURGINDEGIA S.L.L.

Goiko errota - Leitza | T/F. 948 51 04 02
M. 669 70 79 16 | 609 06 71 23

info@zurlan.net
www.zurlan.net


Diseinu orokorri pertsonalitatea gehitzen dion ukitua



URTXULUTEGI Zurgindegia

ateak | leihoak | eskailerak | sukaldeak | armairuak
Zurgin lanak orokorrean
PVC eta ALUMINIOA
www.carpinteriaurtxulutegi.es

Ordoki ind. | ARIZKUN | 948 453 475
carpinteriaurtxulutegi@hotmail.es



Argazkiak: trucosparadecorar.com

ZURGINDEGIAK

Egurra; etxebizitzak janzteko lehengaia


Material ekologikoa da eta ezaugarri tekniko ezin hobeak ditu. Horregatik, zoruetan, altzarietan eta eraikuntzan ez ezik, dekorazioan ere geroz eta gehiago erabiltzen da.



Egurra mendeetan zehar gizakiak erabili duen elementu bizi eta naturala da. Iraunkorra da oso eta berezkoak dituen ezaugarriak galdu gabe, landu eta zaharberritzeko aukera ematen du. Garai batean, eraikinaren egitura osatzeko erabiltzen zen gehienbat. Gaur egun ordea, erabilera zabaldu eta dekorazioko elementu garrantzitsua bihurtu da. Gainera, merkatuan dauden berniz bereziei esker, ura eta hezetasuna hobeki jasaten duenez, sukalde eta bainugeletan ere geroz eta gehiagotan erabiltzen da.

Merkatuan tonu eta testura desberdinetako egurrak daudenez, dekorazio-estilo guztiekin ongi lotzen den elementua dela erran liteke. Etxebizitza modernoek, tradizionalak, apurtzaileek... denek topa dezakete bere estilora egokitzen den egur mota. Ukitu berezia

emanaz gainera, sukaldeko gainazalean jarriaz, horma edo sabaietan pinturaren ordeaz erabiliaz, eskulan gisara...



Gainera, ez da ahan-tzi behar, egurraren ezaugarriak nagusiena, beroa mantentzeko duen gaitasuna dela. Ez soilik bero fisikoa, maila emozionalen ere goxotasunaren sinonimo baita. Egurra erabilia beraz, atmosfera berezia, desberdina... lortu genezake.

Sukaldeko gainazalean ere geroz eta gehiago erabiltzen da, bertze elementuekin konbinatuz



SERRERIA ALEMÁN S.L.

SERRERIA ALEMÁN S.L.

Teilaturako estrukturalak (douglas pinua, haritza...)
Tarima • Haritza, izeia laminatua
KVH • Laminatuak
Egur trinkoa • Tratamentuak

CE

Frantziako errep. 2-A • ERRATZU • T.948 453 173 F. 948 453 082
info@serreriaaleman.com • www.serreriaaleman.com

M INDEGIA ZURGINDEGIA

ATEAK • TARIMAK • LEIHOAK • TEILATUAK • PARKETAK
ARMAIRUAK • ESKAILERAK • SUKALDEAK
BERRIKUNTZA LEIHO MIXTOAK (EGURRA-ALUMINIOA)

T. 948 451 906 • M. 689 531 012 • AURTITZ
carpi.mindegia@yahoo.es • www.mindegia.com

Carpintería
EZPELA
Zurgindegia

BERA

678 350 412 (Eloy)
617 081 335 (Matias)

ITURRIONDO
ZURGINDEGIA

parketak • atekak • leihoak...
teilatuak • estrukturalak • tarimak

607 890 923 • 607 890 966
Tel/Faxa. 948 631 430
Zalain ind, 7 • BERA

Jauriena
Instalazio elektrikoak

608 777 926
630 136 863
948 631 217
jaurenabera@gmail.com

Instalazio elektrikoak · Mantentimendu industriala
Etxetresnak · Antenak · Sukaldeko altzariak

ETA ORAIN
· DIGITAL PLUS **DIGITAL+**
· ENERGIA ETA ARGIZTAPENAREN EFIZIENTZIA AZTERKETAK

LABORRA ARKITEKTOAK
-Gabriel & Ines-

Etxebizitzak - Berrikuntzak - Hirigintza
Ziurtagiri energetikoak

Santiago, 54-1° Elizondo T. 948 580 122
www.laborra.com

BORTZIRIAK
25 urte enkerrik asko guztiak!!
expert

%20
DESKONTUA
SUKALDE
ALTZARIETAN

MAHAI eta AULKIETAN ESKAINTZA BEREZIAK


Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091
info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

SUKALDEAK

Bizitzaz betetako sukaldea

Ezertan hasi aitzinetik, sukaldearen antolamendua zehaztu behar da. Sukaldeak duen espazioa kontuan harturik, momentuan ditugun beharrak eta etorkizunean eduki ditzakegunak zeintzuk diren zehaztu. Sukaldea modu egokian antolatzen badugu, lana eroso egin eta denbora eta esfortzua aurreztuko ditugu.


Horretarako, ahal denetan, lanerako triangelua aplikatzea gomendatzen dute adituek. Sukaldeetan su plaka, harraska eta hozkailuaren bueltan egiten ditugunez joan-etorri gehienak, hirurak elkarrengandik gertu baldin badaude, erraz eta arin arituko gara lanean. 90 cm-ko distantziara egotea da onena: elkarrengandik ez urrutiegi eta ezta gertuegi ere.



Forma eta neurria kontuan hartuz

Sukaldearen forma eta neurriak baldintzatuko du sukaldearen banaketa. Espazioa ahalik eta gehien aprobetxatu ahal izateko, profesionalengana jotzea izaten da aproposena, beraiek txoko bakoitzari etekina ateratzeko modua bilatzen baitute. Gainera, altzariak neurria egiten dituztenez, ia ezer ez da ezinezkoa.

Altzariz eta etxetresna elektriko hornitzen dugun lehenengo espazioa izaten da sukaldea. Jakiak egiteko tokia izateaz gain, eta horregatik giro atsegina, erabilgarria eta polita lortzeko aholkuak dituzue ondorengo lerroetan



Aukeraketa horretan laguntzeko, modan dauden joerak zeintzuk diren begiratzea ere ez dago soberan:

Brontze kolorea nagusi

Aluminio edo altzairuaren partez brontzea erabiltzea da proposamenetako bat, errate baterako, txorota, harraska eta sukaldeko kanpaian. Konbinatzeko aukera ugari eskaintzen ditu eta primeran ematen du altzari zuri eta grisekin.

Zuria eta beltza; klasikoak

Ezin erran, denboraldi honetako berrikuntza denik, azken urteetan beti present egon diren koloreak direlako. Orain gainera, sukalde osoarekin bategiteko, altzairuzko elementu guztiak zuri edo beltzak izatea proposatzen da, labearen atea eta sukaldeko kanpaia ere.

Etzetresna adimendunak

Ehundaka errezeta beren memorian gordetzen dituzten labeak, mugikorraren bidez kontrolatu litezkeen gailuak... berrikuntza teknologikoak bide berriak lantzen ari dira. Sukaldeei ukitu berezia, desberdina... gehitzeko aukera ematen dute.



Goruntz begira

Sukaldeetako sabaiak margoekin apainduz, lanpara ikusgarriak jarritz... goruntz begira egoteko arrazoiak eman nahi dituzte diseinatzaileek.



Apalak erabili

Armairuetan gauzak gordeak eduki beharrean, apaletan eskura edukitzea proposatzen dute, begi-bistan.



sukalDeco

estudio cocina y baño



www.sukaldeco.com IRURITA 948 580 666

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTZOIAK - ETXETRESNAK

BORTZIRI
UNSION ANAIK

Erakusketa: **Bereau Etxea** LESAKA Nafarroa
T. 948637266 M. 607226891
bortzirialtzari@telefonica.net



www.miguelena.es

Miguelena

Etzetresnak | Sukalde eta bainugelako altzariak | Pareta-armairuak

T. 948 450 925 | M. 677 525 292 • 677 525 324 | Ameztia zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE



Olabarri
olabarri
muebles altzariak

Gipuzkoa etorbidea, 16
20302 Irun, GIPUZKOA
tel. 943 615 447
mueblesolabarri@gmail.com
www.mueblesolabarri.com

EGONGELAK

LOGELAK

GAZTEENTZAKO LOGELAK

ARMAIRUAK

JANGELAK

TAPIZERIA

AULKIAK

ALTZARI OSAGARRIAK

KOLONIALAK-VINTAGE

ARGIZTAPENA

KANPOKO ALTZARIAK

ALFONBRAK

ETA ASKOZ GEHIAGO





DEKORAZIOA 2016

Iazko joeretan sakonduz

Kolorea, geometria, material berriak, bukaera metalizatuak....



Garai eta estilo ezberdinetako altzari eta osagarriak nahastea da proposatzen duten aukeretakoa bat: estilo industrial eta retroa lotzea adibidez.

Naturako elementuei ere garrantzia handia ematen zaie eta forma geometrikoetan, praktikotasuna bilatzen dute hauek, marra zuzenak, apaindura gutxiak eta kolore grisa, zuria, beltza eta marroia lehenetsiz.

Aurtengo berrikuntza nagusia, **marmolaren erabilera** da; jangelako mahaia eta egongela eta logelako mahaioak osatzeko erabiltzen da.

Kolorea gustuko dutenek, **mostaza, gorri eta urdinaren** aldeko apustua egiten badute, bete-betean asmatuko dute.



Plaza Zaharra, 27
Erakusketa: Bittiria | LESAKA
T. 948 637 780
info@mueblesordoki.com



www.mueblesordoki.com



CLIMALIT KRISTAL BIKOITZA
ISPILUAK edozein lodiera eta kolorekoak,
alakadunak, kanteatuak...
BEIRA-PLAKA LAMDIK
BEIRA BLINDATUAK

T. 667 424 649
Landazelaia pasealekua, 4 · LESAKA





• Iraetako Industrialdea - Errota, 13 20740 ZESTOA • T. 943 14 75 32 • F. 943 41 78 65
www.muebleszelaitxiki.com info@muebleszelaitxiki.com



BIDASOA ALTZARIAK
ALTZARIAK · DEKORAZIOA

Nafarroa ibilbidea,9 IRUN | T. 943 63 29 32
info@mueblesbidaso.es | www.mueblesbidaso.es



ZUBIETA

KULTURA → TXALAPARTAK ARGITARATU DU

Bigarren ipuin liburua idatzi du Izaskun Zubialdek

Haurrei zuzendutako euskal mitologiari buruzkoa

Fermin ETXEKOLONEA

Izaskun Zubialde herritarrak eta Bakarne Atxukarrok, Aitziber Alonso ilustratzailearekin batera eta Txalaparta argitaletxearen eskutik, haurrei zuzenduriko Euskal mitologiari buruzko bigarren albuma argitaratu dute, aurreko txandan bezala euskaraz eta gaztelaniaz.

Euskal mitologia, haurrei kontatua liburu-

ak helburu zehatz bat dauka: betiko liburuez gain, etxeko txikienak, egileek etxean entzun dituzten mito eta kondairen berri izatea, eta diotenez bizitza guztirako baliagarriak diren irakaskuntza eta baloreez beteriko ipuinen berri izatea.

Beraien hitzetan, «Mito, kondaira eta pertsonai mitologikoak, belaunaldiz-belaunaldi, bitzi garen ingurua ulertzeko erabilgarriak izan dira. Ahoz-ahoz transmititu diren jakintza hauei esker gugana iritsi dira. Baina normalean jakintza hauek helduei bideratutako hizkuntzan



UTZITAKO ARGAZKIA

Joaldunak Nafarroa Oinezen eta harat-honatean

Joaldunek parte hartu zuten Elizondan, Nafarroa Oinezen. Ikastolen eguna izaki, ttikiak ere joan ziren eta gustura ibili ziren. Gerora, Iruña kantuz ekitaldian parte hartu zuten Baluartan eta Urdazubiko Kantu Egunera joatekoak dira.

idatziak izan dira. Arrazoi hori medio, oraingo honetan haurrei egokitutako hizkuntza erabili da eta erakargarriak diren ilustrazioz lagundu dira testuak, gure ondare kulturala modu natural eta interesgarrian hurbiltzeko asmotan».

UTZITAKO ARGAZKIA
Bakarne Atxukarro eta
Izaskun Zubialde idazleak.



GIZARTEA → URRIAN ZEHAR

Elgorriagako bainuetxean izan dira Aspace elkarteko kideak

Zizurko eguneko zentroko 16 heldu eta bere laguntzaileak

TTIPI-TTAPA

Elgorriagako bainuetxekeko instalakuntzak pertsona guztientzako

egokituta daude eta Aspace elkarteko kideak gonbidatu dituzte urrian. Lauko taldetan bertaratuta dira urriko azken asteetan Zizurko Ramón y Cajal eguneko zentroko 16 heldu eta euren laguntzaileak. Aisialdiaz gozatzeko aukera izan zuten eta primeran pasa zuten ber-



UTZITAKO ARGAZKIA

Bainuetxeko ur gazian gozo ibili dira Aspaceko kideak.

taratuek. Elkarlanean egindako lehenengo saioak izan badira ere,

aurrerantzean mantentzeko helburua dute, Aspacek dituen 150 kide

baino gehiagok disfrutatzeko bisita izan dadin.

BEINTZA-LABAIEN

GIZARTEA → URRIAREN 21EAN

Ehun urte bete ditu Xillategiko Bautista Goñik

Bizimodu
gehiena
Armasko
bordan egina
da, baina orain
Xillategian bizi
da

Arantxa ITURRALDE

Iritsi da Beintza-Labaiengo herritar hau 100 urtera. Mende bat bete du Bautista Goñik. Orain artean ez dugu eza-gutu ezta entzun ere inor adin hortara iritsi denik. Hortxe-hortxe ibili ziren bai, Buleako Alejandro, Doralbeko Frantxiska, Mingoetxeko Anastasia, Lopeneko Agustina, etab. Baina ez ziren iritsi 100 urtetara.

Bautista bere bizimodu gehiena Armasko-

bordan egina da. Han, bere emazte zenarekin, Mariarekin, hazi zuen familia ederra: Kandida, Joxe, Roxita, Juanita, Victor, Modesta, Manuel eta Periko seme-alabak. Nekazari bezala beti, eta hortaz gain aulkiak egiten aritzen zen lezka ekarrita. Bertze etxeko ardiren bat edo abereren bat ikusten bazuen Amezti aldean, Bautistak agudo ematen zuen abisua. Beti irrifarrez, beti umore onean, denekin harreman xamurra izan da beti. Barruko alaitasun eta goxotasun horrek, zerbait izango du 100 urte bete baditu. Seme-alabek kabia uzten hasi zirenean, Armasko-bordatik Xillategira joan zen bizitzera eta han bete ditu 100 urteak.



ARGAZKIAK: A. ITURRALDE

Bautista bere birbilobekin eta mendeurreneko tartaren kan-delei putz eginez.

OIZ

Malerreka
kantuz egin
dute

TTIPI-TTAPA

Azaroako Malerreka Kantuz Oizen egin dute azaroaren 7an. Eguerdialdera plaza inguruan hasi eta herri osoan hedatu dituzte karriz karriz, umore ederrean. Egun berean, bertso-afaria egin zuten Donamariako Herriko Ostatuan, Julio Soto eta Iker Zubeldiarekin.

NARBARTE

GIZARTEA → AZAROAREN 15EAN

Zuhaitz landaketa egin gogo dute igandean

Lanaren
ondotik
elkarrekin
bazkalduko
dute

Martin BERTIZ

Azaroaren 15ean, igandean, eguraldia lagun bada, herriko mendira goratuko dira zuhaitzak landatzera. Joan den urtean hasi zi-

ren lan honekin eta eskolako haurrak gustora ibili ziren. Aitzaki honekin, eta lan ederra egin ondoren, denak bazkaltzera elkarrekin joanen dira.



**Peio Añorga ipuin
kontalaria**

Joan den urriaren 31n, Bertizaranako Uda-

lak eta Malerrekekako Mankomunitateak antolatuta, arratsaldeko 5etan izan genuen hitzordua. Udaletxeko 2. solairuan jende andana elkartu zen Peio Añorgaren saioa ikusteko. Legasakoak, eguraldi ona zenez, oinez etorri ziren, eta plazan herriko kuadrila zuten zain. Bukatzerakoan txokolatea banatu zuten aterpean. Arratsalde ederra pasa zuten haur eta gurasoek.

ARESO

GIZARTEA → EUSKARA TALDEAK BULTZATUTA

Euskararen eguna denon artean osatzeko dei berezia

Herritarrei gogoeta eginarazteko kartelak jarri dituzte

Juana Mari SAIZAR

Kartel misteriotsuak agertu dira azaro hasieran herriko txoko askotan “Euskara eguna?” irakur liteke bertan. Helburu argia dute: herritarrek euskararen eguneko ospakizunean parte hartu eta antolakuntzan

ere aritzea nahi da. Euskara Taldeak hartu izan du azken urteetan egun hau antolatzeko ardura eta herriko hainbat eragilarekin bildu dira aurtun, haiei ere festan parte hartzeko deialuzatzen. Azaroaren 6an bileraregitekoa zuten, zer eta nola egin erabakitzeko. Hurrengo aldizkarian emango dizuegu erabaki zenaren berri.

Bestalde, Errigorako kanpainaren aurkezpenean jendea bildu eta askok egin dute eskaera.



ARGAZKIA: JAIONE OLAZABAL

Sasoian sasoiko ohiturak

Udazkena, gaztain erreen zaporearekin lotzen dute askok eta Aresoko haur eta gurasoek ere ohitura hori ongi ikasia dute. Udazkeneko Guraso Elkarteak antolatu eta haurrek oso gustora egin ohi duten ekintza da. Aurtun ez dira gaztain bila mendira joan baina jan bai, jan dituzte. Pake Tokin elkartu ziren eta arratsalde ederra pasa zuten!



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Santu guztien eguneko ospakizunak

Eguraldik ederki lagunduta herritarrek bere hildakoei bisita egin zieten. Dotore apainduta zegoen hilerria eta horretaz aparte esan behar oso txukuna zegoela, belarra moztuta eta barrengo zuhaixkak ere bai. Egun polita izaten da eta herriko seme-alabak, kanpoan bizi direnak zita izaten dute eta herrira etortzen dira bisitan.



ARGAZKIA: HARITZ BARANDARAIN

Uso-pasa ikusgarria azaroaren 1ean

Goizean goizetik sumatu zen mugimendua Aresoko ehiza postuetan. Hego haizea lagun, esperantza dezenterekin igo ziren ehiztariak postuetara. Ez zuten espero ordea, azken urteetako marka guztiak hautsiko zituztenik egun bakarrean. Bat baino gehiagok eraman zuen uso sorta ederra etxera, baina Txakon belazeko postuan Txomin Arraiago eta Patxi Barandarainek marka guztiak hautsi zituzten. Eguerdirako 48 uso bota zituzten eta arratsaldean zifra borobila lortu, propina eta guzti 51 ehizatu zituzten azkenean. Ez da giro erretiratu hauekin!

ARANO



TESTUA: MIRARI BEASAIN/ARGAZKIA: PINO VICEDO

Sorgin eta Mamuen gaua ospatu dute bigarren urtez Arano

Santu Guztien bezperan, *Sorgin eta Mamuen gaua* ospatu zuten hainbat herritarrek. Umek hala eskatuta, iaz antolatu zuten lehenengoz guraso batzuek festa hau. Mozorroak soinean jantzita, xaguxarrak eta kalabazak margotu ondoren etxeetako ateak jo zituzten, etxeetako jabeak beldurtzeko asmoz (jasotako goxoki kopurua sorrazitako beldurraren parekoa izaten omen da). Ondoren, 8 *Mamuen hitz ezkutua* jolas misteriotsuan jolastu eta afari herrikoi batekin agurtu zuten aurtengo Sorgin eta Mamuen gaua.

GIZARTEA → GERO BARRENA AUZOLANEAN

Tifanitxoko lau hormak eta teilatua moldatuko ditu Udalak

Barrenean txokoren bat nahi dutenek eskaera egin behar dute hilaren 25a baino lehen

TTIPI-TTAPA

Zuetariko gehienak Tifanitxora dantzara edo zinema emanaldietara joango zineten. Gaztea-goak zaretenak, Gaztetxe modura ezagutu izanen duzue. Edozein kasutan, goizuetarren oroitzapen franko gordetzen dituzte Tifanitxoko lau hormek.

Begibistakoa da azken urteetan okerre-
ra egin duela eraikina-

ren egoerak eta Udalak, aurreko udal taldeak hasiera eman zion zahar-berritze proiektuari segida emango dio. Horretarako, 68.000 euroko inbertsioa egingen du eraikinaren lau hormak eta teilatua berritzeko.

Kanpoko obra hau-
ek, heldu den urteko martxoan hastea aurrekusi du eta bi hilabete-
tan bukatzea. Baina zer gertatzen da barrukoarekin? Eraikina kanpotik ez ezik, barrutik ere berritzeko momentua dela uste du Udalak. Orain artean bezala, erabilera publikoa eman nahi zaio eraikinari eta herriko beste hainbat txoko berritu diren gisan (labadorea, Umore Ona elkarte...)



UTZITAKO ARGAZKIA

Barreneko aldea auzolanean moldatzeko asmoa du Udalak.

Tifanitxo ere auzolane-
ren bidez berritu nahi luke Udalak.

Eraikinak, gaur egun duen erabilera baino gehiago izan ditzakeenez, bertan beren jarduera burutzeko txoko bat izan nahiko luketenean udal-
letxean eman behar dute horren berri. Horretarako, azaroaren 4tik 25era idatzi bat aurkeztu beharko dute, honakoak zehaztuz: nork egingen duen eskaera, zer erabilera eman nahiko liokeen, gune horretan zein behar edukiko lituzkeen (mahaia, apalak, arraska...) eta interes-

garri iruditzen zaion beste edozelako informazio. Guzti honekin, espazioa ahalik eta modu egokienean antolatzen saiatuko dira, eraikinari ahalik eta erabilera anitzena emanaz.

Goizuetako Udalak bidalitako oharra dioenez, «ikusten duzuenek, lan asko dugu aurretik, baina goizuetarrok ongi dakigu elkarlanari esker nolako emaitzak lortu ditzakegun. Beraz, Goizuetari bizitasuna emango dion topagune honetan, badugu zereginik auzolanean geroa ereiteko!».

FLASH

Zakurrak lotuta

Hainbat kexa jaso ondoren, herrian ibiltzen diren zakurrak lotuta edota beren jabeekin ibili daitezen agindu du Udalak, bando bidez. Aldi berean, herriko kaleak garbiak mantentzeko deia ere egin du eta horretarako, zakurrak sortutako zikin-
erriak jasotzea ere eskatu du. Horretarako poltsak udaletxean daude interesatuen eskura.

Hilerriko ordutegia

Azarotik maiatzera, larunbat, igande eta jai egunetan 09:00etatik 18:00etara zabalik izanen da hilerria eta maiatzetik urrira 08:00etatik 20:00etara irekiko da. Urrian, egunero zabalik.

Kontribuzioa ordaintzeko epea

2015eko kontribuzioa ordaintzeko borondatezko epea zabalik dago urriaren 19tik azaroaren 23ra. Hala jakinarazi zaie herriko zergadunei, alkateak sinatutako bando baten bidez.

AZAROKO KULTURALDIA AURRERA DOA

‘Goizuetan bazen’ antzerki emanaldiaren 25. urteurrena gogoratuko dute

TTIPI-TTAPA

Azken urteetan kultur ekital-
diz bete izaten da azaroa, Kultur Taldeak eta Umore Ona elkarteak antolatuta, Udalen laguntzaz. Azaroko Kulturaldia, aurtan ere hilabeteko azken larunbateko artisau, nekazaritza eta azienda Feria Egunaekin borobilduko da, baina pasa berri den asteburu honetan ere, dokumentala, umeentzako jokua, Ura eta zura erakusketa eta Jubilatuen Eguna ere ospatu dituzte.

Aurrera begira, azaroaren 13an, ostiralean 19:00etan Ganbaran kantaldia eskainiko dute Nerea Erbitik eta Iñigo Agirrek.

Azaroaren 14an, larunbatean 19:00etan jangelan *Goizuetan bazen* antzerki emanaldiaren 25. urteurrena.

Azaroaren 18an, *Birjinak ala putak?* liburuaren aurkezpena egingen dute 18:00etan jangelan.

Azaroaren 20an, bertsolariak izanen dira ostiral gaueko 9etatik aurrera Umore Ona el-

kartean, Xalto Sariketaren finala jokatuko baita.

Azaroaren 21ean, Leitzako Jeiki Abesbatzak emanaldia eskainiko du 19:00etan elizan.

Azaroaren 22an, *Difret* filma eskainiko dute 19:00etan Ganbaran.

Aipatu bezala, azaroaren 28an, artisau, nekazaritza eta azienda feria egingen da, baina bezperan, *Amama* filma ikusteko aukera izanen da Ganbaran 19:00etan. Sarrera 2 euro ko-
bratuko da.

LEITZA

AZOKA → PLAZAN 10:00ETATIK 14:00ETARA

LeitzEKO taldeak azoka berezia antolatu du azaroaren 15erako

22 ekoizle baino gehiago izanen dira bertan

JM BARRIOLA

LeitzEKO, herriko kontsumo taldea, azoka berezia ari da antolatzen. Azaroaren 15ean egingen da plazan eta herriko baseritarrak eta bestelako ekoizleak gonbidatuko dituzte bertara, beraiek egiten dituzten produktuak erakutsi eta saldu ditzaten. Antolatzaileek aurreratu digutenez, 22 ekoizle baino gehiagok parte hartuko dute. Eki- men honekin erosleen eta ekoizleen artean ha- rreman zuzenak sortu eta bertako ekonomia garatu eta ekoizteko modu arduratsuak sus- tatu nahi dituzte. Ba- razkiak, frutak, azien- dak, hegaztiak... ikusi eta erosi ahalko dira



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Mikologialdiko erakusketa arrakastatsua

Urriaren 25ean, perretxikuz eta bisitariz bete zen plaza. Urtero bezalaxe mota ezberdin ugari bildu ziren, 120 inguru. Bezperan bildu zituzten gehienak, Mendibil mendi taldekoen laguntzaz herriko perretxikuzaleak eta ikastetxeko gazteak ere larunbata goizean Mendibil mendi taldeak lagunduta Leitzalarrea ingurueta- tik bildu zituzten. Arratsaldean ALKE kultur taldeak eta herriko perretxiko zaleak adituak lagunduta sailkatu eta apaindu zituzten, kurioso asko hurbiltzen ziren bi- tartean. igande eguardiarte perretxikuak ikusgai jarri ziren karrapean, eskolako gazteak egindako eskulanak ere plazan jarri ziren. Guzti hau osatuz ondo eta txanpioiekin egindako pintxoak dasta gai izan ziren karrapean bertan.

10:00etatik 14:00etara.
Ondoren, azokan parte
hartuko dutenei bazka-

ria emanen zaie.
Urtebete darama la-
nean kontsumo talde-

ak eta denbora tarte ho-
netan, barazkiekin sas-
kiak osatu eta bazkide-

GIZARTEA

Energia aurrez-
ten ikasteko
tailerra egin
dute jubilatuek

JM BARRIOLA

Goienar Energia kooperatibak eta Arku- peak elkarteak, elkar- lanean antolatu zuten jubilatuei zuzenduta- ko hitzaldia. Urriko azken astean egin zu- ten eta Maria Arretxe herritarra izan zen hizlari. Bera, Goiener energia kooperatiba- ko kidea da eta ener- gia nola aurreztu ikas- teko aholkuak eta ohi- ko energia enpresen alternatibak zeintzuk diren azaldu zuen. Be- rrogei lagun inguruko taldea bildu zen eta gomendio ugari jaso zituzten enpresa han- diak erabiltzen di- tuzten triki-mailuak zeintzuk diren ohartu eta horien aurrean zer egin litekeen irakatsiz.

en artean banatzeaz ga-
in, hitzaldiak, energia
eta elikagaien inguruko
jardunaldiak... antolatu
dituzte.

40 HERRITAR INGURU OHOLTZAN

Lau aro ikuskizuna azaroaren 28an estreinatuko dute

Herriko hainbat artisen, 40 lagun ingururen, elkarlanaren emaitza da Lau Aro eta Leitzako inguruak dira emanaldiaren ardatz nagusia. «Es- perimentu moduko bat» egin dutela azaldu digu Miguel Mari Elosegik, «ikus- kizunean argazki mordoak ikusiko da, eta zuzenean musika jarriko diote he- rriko abeslariak». Argazkiek Leitzako aurpegi desberdinak erakusten dituzte, plaza, kalea, jendea, mendia, egural- dia, gertakari bereziak, urtean zehar dauzkagun ospakizunak... Bertsola- riek narratzaile papera dute, antzezle- ek girotu egiten dute obra eta musika- riek, abeslariak eta dantzariak irudiei dagokien erritmo, giroa, eta doinua ja -

rriko diete. Emaizta definitzen zaila de- nez, «jaialdi-ikuskitzuna» deitu diete be- raiek. Azaroaren 28an, ostiralean, 22:00etan estreinatuko dute zineman mimoz landu duten lana. Sarrerak Mai- mur eta Astiz liburudendetan eskura litezke 8 euroren truke.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Torrea Libre! ren aldeko ekitaldiak

Urriaren 24an Torrea Libre ekimenak ere ekintza ugari antolatu zituen herrian. Pilota partidak, Buzbu musika taldearen eta Garaztarrak dantza taldearen emanaldia, DJa... Urriaren 30ean Su Ta Gar taldea aritu zen zuzenean. Azaroaren 7an Torrea Libre egu- na egitekoa zuten. Hurrengo ekitaldia azaroaren 22an izanen da, herri kirol lehia eta erakustaldia antolatu dute plazan, 12:00etatik aurrera.

GIZARTEA → IRAILEAN BAINO 3 GEHIAGO

965 langabetu ditu eskualdeak

Doneztebeko bulegoan 699 kontratu sinatu ziren urrian, 45 mugagabeak

Arantxa ITURRALDE

Azken 7-8 hilabeteetako joeraren kontra, langabeziak zertxobait goiti egin du eskualdean urrian. 965 langabetu zeuden izen emanak Doneztebeko Enplegu Bulegoan hilabete hon-darrean, irailean baino 3 gehiago. Halere, Nafarroako banaz bertze-koa baino guttiago igo da, gure inguruan %0,31ko igoera izan den bitartean, Nafarroa osoan %1,83 igo baita langabetu kopurua.

Urrian 699 kontratu egin ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez, baina horietatik 45 bakarrik izan ziren mugagabeak.

Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goitiko gizasemeen artean 411 lagun daude lan-gabezian, irailean bai-

no 12 gehiago. Adin tar-te horretako emakume-en artean, irailean bai-no 9 langabetu gutti-go daude, 474. 25 ur-tez beheitiko gizaseme-en artean, irailean bai-no 4 langabetu gehia-go daude, 40 denera, eta adin tarte horretako emakumeen artean, al-diz 4 langabetu gutti-go daude, 40 denera.

Zerbitzuen arloa da langabetu gehien due-na, baina urrian 8 gu-ttiago ziren (665). Indus-trian irailean baino 4 langabetu gehiago dau-de, 127 denera. Erai-kuntzan berdin man-tentzen da, 91 langabe-tu. Nekazaritzan irail-ean baino 4 langabetu gehiago daude, 28 de-nera, eta aitzinetik lanik egin ez dutenen artean ere 3 langabetu gehia-go daude, 54 denera.

Aipatzekoa da, koa-droan ageri den beza-la, dexente gehiago di-rela langabezia presta-zioa kobratzen ez dute-nak (531 lagun, hau da %55,03a), kobratzen dutenak baino (434 la-gun, %44,97a).

LANGABEZIA-DATUAK HERRIKA | 2015eko urria

Herria	Populazioa 2014	Lanik gabe guztira	Langabezi-prestaziorik kobratzen dute?	
			EZ	BAI
ARANO	111	5	2	3
ARANTZA	629	15	6	9
ARESO	266	3	1	2
BAZTAN	7.848	246	137	109
BEINTZA-LABAIEN	234	5	3	2
BERA	3.760	121	60	61
BERTIZARANA	602	41	19	22
DONAMARIA	456	23	13	10
DONEZTEBE	1.644	94	59	35
ELGORRIAGA	226	10	8	2
ERATSUN	160	7	3	4
ETXALAR	819	30	13	17
EZKURRA	152	7	2	5
GOIZUETA	747	32	16	16
IGANTZI	625	16	6	10
ITUREN	525	29	22	7
LEITZA	2.906	118	67	51
LESAKA	2.742	99	57	42
OIZ	140	3	1	2
SALDIAS	118	5	2	3
SUNBILLA	650	34	20	14
URDAZUBI	392	7	2	5
URROZ	179	2	1	1
ZUBIETA	319	9	7	2
ZUGARRAMURDI	225	4	4	0
Denetara	26.475	965	(%55,03) 531	(%44,97) 434

NAFARROAKO GOBERNUAK BULTZATUA

Bidasoa eta Plazaolako Bide Berdeak lotuko ditu Ederbidea mugaz gaindiko proiektuak

TTIPI-TTAPA

Ingurumena errespetatzen duten garraiobideak sustatzeko helburua-ekin, mugaz gaindiko *Ederbidea* proiektua bultzatu du Nafarroako Gobernuak. Egitasmoak 2,4 milioi euroko aurrekontua izanen du eta %65a bitarteko dirulaguntza izan dezake, Europako Mugazgaindiko Lankidetzatza Programatik (POCTEFA).

Ederbidea proiektuak segida eman nahi dio Noruega eta Portu-gal lotzen dituen Eurovelo 1 bide berdeari. Duela urte batzuk Lapur-diko Getaria eta Endarlatsa arteko bidea egokitu zen. Ederbideak, Be-ra eta Iruña arteko 67,5 kilometro bide egin nahi ditu. Zehazki, Bida-soa eta Plazaolako bideak lotu eta Iruñeraino segida eman nahi zaio.



askatasunaren bidean presoak



etxera!



sortu

➤ **LEITZA**

Azaroak 19 19:00
Aurrera elkartean

➤ **HITZALDI BIRA**

Azaroak 20 19:00
Arranon

➤ **LESAKA**

GIZARTEA

INGURUMENA → BALIO EKOLOGIKO HANDIKO HABITATAK DIRA

360.000 euro inbertitu ditu Gobernuak zortzi zohikaztegi kontserbatzeko

Ekimen hori Life-Tremedal proiektuaren barnean egin da, eta haren azken mintegia Bertizen egin zuten

TTIPI-TTAPA

Nafarroak 358.429 euro inbertitu ditu Foru Komunitateko zortzi zohikaztegi kontserbatzeko, *Life-Tremedal* proiektuaren barnean egindako ekimena, eta haren mintegia Bertizko Jaurreriko Parke Naturalean egin zuten. Zohikaztegiak ura lur-mailaren azpitik dagoen lur-sailen gunek dira, nahiz eta inguruan egindako kaltea erabakigarria den eta bertan bizitako landare- nahiz animalia-motak baldin-tzatzen dituen. Guztira, paraje horiek guztiak kontserbatzeko

716.858 euro erabili dira, % 50 Foru Komunitateak emanda eta gainerako %50, LIFE+Natura Europako funtsak.

Bertizen egindako saioan, proiektuan parte hartutako erakundee-tako langile teknikoak aritu ziren, eta ondorengo gaiak jorratu zituzten: Europako zohikaztegi-en sailkapena, hezeguneak kudeatzeko eta kontserbatzeko jardun-bide egokiak, hezegune kontinentaletako flora eta fauna kontserbatzea, eta hezeguneetako zerbitzu ekosistemi-



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Belateko zohikaztegiaren egurrezko dikeak eraiki dituzte hezetasun-maila areagotzeko.

koak. Mintegia akitzeko txango bat egin zuten Baztan eta Zugarramurdi arteko Arxuriko zohikaztegia bisitatzeko, baita Baztan nahiz Ultzama arteko Belatekora ere (15.000 urte baino gehiago ditu).

JARDUKETAK ETA AZTERKETAK

Azken urteotan, Nafarroako Tremedalen sartutako zortzi kokalekue-tan lan egin da: Belate, Lixketa, Alkurruntz, Xuriain, Okolin, Maulitx, Arxuri eta Mendaurren. Haietan guztietan, zenbait jarduketa egin dira, adibidez: habitat eta espezie interesgarrien azterketak nahiz laginak, eta funtzionamendu hidrologikoari eragin-dako kalteak konpontzea egurrezko dikeak eraikiz zenbait eremutan hezetasun-maila areagotzeko; hala, zohikaztegi-inguruko landaretzako komunitate

DATUA

15.000

URTE

ditu Belateko zohikaztegiak.

propioak garatzeko guneak sortzen dira. Gainera, erabilera tradizionalak kokalekue-tako balioren kontserbazioarekin bateragarri egiteko jarduerak egin dira, esaterako: atetilak eta itxiturak egokitzea, bideak konpontzea. *Life-Tremedal* markoaren barnean, Nafarroak orain arte sortutako azterketa paleoingurumeneko informazio guztia batu du, eta Belate nahiz Arxuriko zohikaztegi-en ezagutza paleoingurumenekoa osatu du; izan ere, zohikatz-gordailu horiek azterketa horietarako informazio-iturri garrantzitsuenak dira. Padura hitza zenbait to-

kitan zohikatzak eta putzuz betetako beste lur-sail batzuk adierazteko erabiltzen da, lurrak "dardara" egiten du bertatik oinez igarotzen denean. Balio ekologiko handiko habitatak dira, haiek dauden gunee-tako biztanleekin harreman estua dute, bertako kultura eta bizimodu-arekin (Europako proiektuan sartuta dauden alderdiak dira). Kokaleku horiek aipatzeko gehien erabilitako beste hitz bat "zingira" da, bertan pertsonak edo ganadua trabatuta geratzeko erraztasun handia dagoelako.

Nafarroako Gobernuak hamar urte daromatza zohikaztegi-en eta haiei lotutako beste habitak batzuen egoerari buruzko azterketak egiten. Plan horietan, *Life-Tremedalek* aztertze-ko eta berrezartzeko hezegune gehienak sartzen ziren.

HEZKUNTZA

Eskolako bertsolaritza programa berreskuratu du Gobernuak

TTIPI-TTAPA

Urriaren 22tik abenduaren 22ra euskarazko ahazkotasuna indartzeko eta bertsoa sustatzeko *Bertsolaritza eskolan* programa martxan jarri da berri, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentutik jakinarazi dutenez; bi urte etenda izan ondoren, ikasturte honetan ikasgeletara itzuliko da. Jarduera Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan egingo da, eta 40 ikasle-talde- parte hartuko dute, mila ikasle-tik gora. Programa Nafarroako Bertsotale Elkarte-ko bertsolarien elkarte-ekin egingo da, 2015-2016 ikasturteko lehen hiru hilabete honetarako, 20.000 euroko laguntza teknikoko kontratu bat sinatuz.

Programaren helburua komunikatzeko gaitasunak areagotzea da, mintzamina bereziki, hizkuntzaren bat-bateko erabilerak sartuz. Bertsoak ikaslearen beraren konfiantza eta segurtasuna sustatzen ditu, hari ikusaraziz bere komunikazioa hobetu daitekeela.

GIZARTEA → EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

Azaroaren 25aren inguruan egitarau zabala prestatu dute

Itsaspeko bihotza erakusketa eta haur literatur aretoa antolatu dituzte besteak beste

TTIPI-TTAPA

Baztango Udaleko Berdintasun Batzorde irekiak azaroaren 25eko Emakumeenganako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunaren inguruan egitarau zabala antolatu du.

Azaroaren 11n, irudi eta hizkuntzaren erabilera ez sexistaren inguruko formazio saio irekia egingen da. Saioa doakoa da baina aitzinetik izena eman behar da Berdintasun Zerbitzuan (948 580006 edo berdintasuna@baztan.eus).

Azaroaren 18an, *Heziketa eta indarkeria matxista* gurasoei zuzendutako tailerra egingen dute Arizkunenean 17:00etan. Aitzinetik izena eman behar da Berdintasun Zerbitzuan.

Azaroaren 20an, 20:30ean Arizkunenean, Xabier Odriozola Ezeitzaren *Gizonezkoen sexismoa, maskulinitasuna eta askapena: Berdintasunerantz libu-*



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Haur literatura lantzeko aretoa egingen dute erakusketaren baitan.

ruaren aurkezpena eta solasaldia izanen da.

ITSASPEKO BIHOTZA ERAKUSKETA ETA HAUR LITERATUR ARETOA

Azaroaren 23tik abenduaren 2ra Galtzagorri elkartearen *Itsaspeko bihotza* erakusketak ikusgai izanen da Elizondoko liburutegian, Lehen Hezkuntzako ikasleei bideratutako genero berdintasuna eta haur literatura lantzeko aretoa uztartuz. Goizean ikastetxeendako tailerrak egingen dituzte eta arratsaldean modu librean bisitatzeko aukera izanen da.

Azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Egunean, elkarretaratzea deitua dute eguerdian Elizondoko Foruen Plazan.

Azaroaren 27an, hel-

duei *Itsaspeko bihotzak* erakusketa bisitatzeko aukera emanen zaie Elizondoko liburutegian 17:00etatik aitzinera.

Azaroaren 29an, az-

kenik, Txalo Produksioak taldearen *Datorren urtean hobeto antzezla* na ikusgai izanen da 19:00etan Irurritako Gizarte Bilgunean.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Kirikoketa Egunean 1.500 kilo sagar baino gehiago jo dituzte

Kirikoketa bestaren hamaseigarren edizioa ospatu zen urriaren 24an Arizkun, Jo ala Jo Kultur Taldeak antolatuta. Gamioxarreko dolarean gerora sagardoa bihurtuko den sagarra jo zen, 1.500 eta 1.800 kilo artean, eta horren inguruan hainbat ospakizun egin ziren. Aurten, Zigaurretik, Azpilkuetatik eta Jo ala Jo Taldekoek Gamioxarre inguruan zaintzen dituzten sagastietatik bildu dute sagarra.

ESKERTZA

ELAren ikerketa laguntzeko 'bustialdiak' eskertu dituzte

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Alboko Esklerosi Amiotrofikoa elkarteak (ADELA), 'Baldeka ur izoztuaren' kanpainan parte hartu duten guziak eta lortutako dirulaguntzagatik eskerrak eman nahi izan ditu ohar bidez. Jasotako donazioak, Navarrabiomed-Miguel Servet Fundazioaren bidez, ELAren ikerketarako bideratuko dira. ADELA elkartearen oharrek dioenez, «zure solidaritate eta eskuzabaltasunari esker, gaixotasun honen zergatiak ikertzen segitzen dezakete».



4
LOTE
ZOZKETATUKO
DITUGU
urtean zehar

ARKUPE

Gozotegia · Txokolategia

Elizondo-Irurita (Nafarroa) · Tfn. 948 45 23 93
info@arkupegozotegia.com · www.arkupegozotegia.com



BAZTAN

GIZARTEA → HELBURU NAGUSIAK BETEAK

Oinezen lekukoa Erriberako bi ikastolak dute gaurgero

Aurtengoaren azken balorazio gazi-gozoa egin du Baztan Ikastolak

TTIPI-TTAPA

Vianako Erentzun ikastolak eta Lodosako lbaialde ikastolak jaso dute Nafarroa Oinezen lekukoa, Baztan Ikastolako ordezkarien esku-tik. Beraz, 2016ko Oinezen Vianan egingen dute. Horrekin batera, azken balantze gazi-gozoa egin du Baztan Ikastolak. Gozoa, urriaren 18an bildutako diruari esker ikastolan hobe-kuntzak egingen dire-lako eta gazia, ospakizun egun hori, 4. gunearen inguruan jazo zen us-tezko sexu erasoak goi-beldu zuelako.

Baztan Ikastolatik jakinarazi dutenez, «euskararen aldeko auzolan erraldoia egin genuen, eta horri esker posible izanen da Ikastolako leihoak berritzea eta isolamendua hobetzea. Horrez gain, Haur Hezkuntzako eraikinean sabaia goratu eta zoru aldatuko dugu,

azken hau termitek jositako baitago. Aldi berean, Lehen Hezkuntzako eraikinaren patioan estalpea paratuko dugu, gure haurrak busti egiten direlako neguan euria ari duelarik. Aurtengo estalpea emanen diegu, euskarari estalpea eman dieten eta diozuen guzoi esker».

Energia berriztagarrien, garbitasunaren eta birziklapenaren alde lan egin du Baztan Ikastolak eta aurtengo Nafarroa Oinezeko emaitzak arras onak izan dira. Markak hautsita, inoiz baino gehiago birziklatu dute: «bildutako 6,7 tonetatik 5,7 birziklatu ditugu, hau da, bildutakoaren %84,62».

Batzordeetan urte guztian egindako lanaren ondorioz, arrakastatsua suertatu zen Nafarroa Oinez egunaren antolakuntza. Elizondoratu ailegatzeko ez zen trafikoa arazorik izan, ezta aparkatzeko ere; «ostalaritzan berehalako atentzioa izan genuen denok, segurtasuna, osasungintza... dena primeran joan zen egun guztian zehar». Osasungintzari dagokionez



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

Udazkeneko giro bikaina Elizondoko ferietan

Udazkenekoa baino uda betekoa zirudien eguraldiarekin ospatu dituzte aurten Elizondoko feriak. Hainbat azienda buru hurbildu zituzten Merkatu Plazara eta jendetza ibili zen ortziralean eta baita larunbateko Atsoferian ere.

ere datu positiboak izan dira: 87 pertsona hartatu zituzten, iaz baino 65 gutxiago (iaz 152 izan ziren). Horietako 12 intoxicazio etilikoak izan ziren (iaz, Zangozan, 17).

Baina antolakuntza aldetik egunak aurreikusitako garapena izan bazuen ere, zoritxarrez, gertakari larri batek balantzea lausotu du. Ikastolako ordezkariak ai-

patu dutenez, «denok dakizue ustezko sexu erasoak izan zela 4. gunearen inguruan. Gertakari horren aitzinean berehalakoa izan zen antolakuntzaren erreakzioa. Berehala paratu zen martxan kasu horietarako protokoloa eta gaiak eskatzen duen zuzenbidearekin bideratu gela. Honek, nolahi ere, hausnarke-

tarako parada eman behar hake liguken denoi, gizartea erri dagoen seinale baitira horrelako gertakariak. Momentu zailak bizi izan ditugu Ikastolan, ez baikenuen horrelakorik espero. Baina gertakari ilun horietatik argi pixka bat ateratze aldera, gure arteko harremana indartu egin dela azpimarratu genuke».

UDALAREN ETA HEZKUNTZA KONTSEILARIAREN ARTEKO BILERA

Elizondoko lanbide eskolaren geroaz eta Lekarozko herri eskola berriz irekitzeko aukeraz aritu dira

TTIPI-TTAPA

Elizondoko lanbide eskolaren geroaz eta eskualdeko lanbide heziketaren eskaintza aritzeko, azaroaren 2an udaleko ordezkariak Nafarroako Gobernuaren hezkuntzako arduradunekin bildu zen. Udaletik Joseba Otondo alkatea, Juan Kruz Iriarte hezkuntza zinegotzia eta Iñigo Iturralde industria zinegotzia joan ziren. Nafarroako Gobernutik berriz Jose Luis Mendoza hezkuntza kontseilaria, Estebe Petrizan hezkuntzako zuzendari nagusia eta Juan Ramon Elorz unibertsitateetako eta hezkuntza baliabideetako zuzendari nagusia. Bilkuran Elizondoko lanbide eskolaren eraikina mintzatu

ziren, zaharturik eta egoera txarrean baitago. Aldi berean, lanbide heziketa eskaintza egokitzearen eta berri-zearen beharraz aritu ziren, bai hezkuntza arautua baita ez arautua ere. Bertzalde, lanbide heziketa eskolek landa eremuak sozioekonomikoki dinamizatzeko duten garrantzia aritu ziren. Kontseilariak lanbide heziketa eskaintza lantzea eta zehaztea eskualdeari dagokiola aipatu zuen.

Bertzalde, Lekarozko herriko eskola berriz irekitzeko aukera aztertzen zuten. Kontseilariak gaia aztertzeke prest zeudela erran zuen eta, irekitzekotan, hurren matrikulazioari buruz konpromiso sendoak galdegin zituzten.

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONÓZ · MUGAIRI

GIZARTEA → URRIAREN 22KO BATZARRA

Bideak mantentzeko traktorea eta desbrozadora erosi ditu Udalak

Herrietako alkateen eskariari erantzuteko 60.000 euroko aurrekontua izanen da

TTIPI-TTAPA

Traktorea eta sasitza mozteko tresna edo desbrozadora erosteko erabakia hartu du Udalak urriaren 22ko batzarrean. Herrietako alkateen aspaldiko eskarera zen hau eta aurtengo diru soberakina erabiliz EH Bilduren eta Ezkerraren proposamenaz eta Auzolaneean babesarekin erabakia hartu da. Gero Bai eta UPN aurka agertu dira. Traktorea eta sasitza

mozteko tresna erosteko aurrekontua 60.000 eurokoa da.

Traktorearekin eta sasitza mozteko makinarekin pistak mantentzen ahalko dira. Baztanen 900 kilometro pista baino gehiago dau eta barreiatutako bizitegi aunitz. Orain artio herri bakoitzari urtero hiru kilometro pista garbitzeko kanpoko zerbitzua eskaintzen zitzaien. Zerbitzu hori, ikusi ahal izan denez, ez da nahikoa. Traktorea eta sasitza mozteko makinaren inbertsioarekin bideak behar diren bezala mantenduko dira. Gainera, etorkizunean zerbitzu gehiago eskaintzeko aukera ematen du: bazkaleku komunalakotasitza mozteko edo desbrozea adibidez.



ARGAZKIAK: FOTO ZALDUA

Sendotza eta ezkontza Almandozko elizan

Urriaren 25ean sendotza egin zuten Alazne, Aitor, Oihan eta Oihane almandoztarrek eta Berroetako Saray eta Anek Almandozko elizan. Aste batzuk lehenago, urriaren 11n, Ruben Ostiz eta Maider Atxa almandoztarrek ezkondu ziren.



ARGAZKIAK: MIREN MARITORENA

Onddo ederrak bildu dituzte

Aurten onddo ederrak atera dira Baztanen. Goitian, Arizkungo Joxe Mari Soule eta bere biloba Unai Soule Maritorena ageri dira, atxeman duen kilo eta 940 gramoko onddo haundienarekin. Beheitan, berriz, Pablo Irazoki Olaizola ageri da, 920 gramoko onddoarekin. On egin!



EH BILDU, EZKERRA ETA AUZOLANEAN PROPOSAMENAREN ALDE AGERTU DIRA

Eskoletako leihoak aldatzeko 19.000 euroko aurrekontu aldaketa

TTIPI-TTAPA

Herrietako eskoletako leihoak aldatzen segitzeko 19.000 euro erabiltzeko erabakia hartu zuen Udalak urriaren 22ko batzar berean. Horretarako aurtengo diru soberakina kontuan hartuz aurrekontuetan moldaketa egitea onartu zen. Proposamenaren alde EH Bildu, Ezkerra eta Auzolaneean agertu ziren. Proposamenaren aurka UPN eta Geroa Bai zinegotzi bat. Geroa Bai berteak abstentziorat jo zuen. Eskoletako leihoen aldaketarekin ener-

gia eraginkortasuna hobetzen da eta, horrekin, eskola barneko erosotasuna; halaber, aurrezpen energetiko eta ekonomikoa ematen da. Aitzineko legealdian Azpilkueta, Arizkun eta Erratzuko herrietako eskoletan leihoak aldatu ziren eta Elizondoko eskolan eta Baztan ikastolan faseka egiten ari dira lanak. Oraino aldatzeko zain diren eskolak Gartzain, Arraioz eta Amañu dira. Gainerako eskolak berriagoak direnez, momentuan bederen, baldintza egokiagoak dituzte.

FLASH

Santa Zezilia eguneko kontzertua

Baztango Udal Musika Eskolako ikasleek musika ekitaldia eskainiko dute azaroaren 24an, Santa Zezilia egunaren harira. 19:00etan eskolatik atera eta kalejiran ibiliko dira Elizondoko karriketan.

Munduko herriak ezagutuz

Azaroaren 23tik abenduaren 2ra Munduko herriak erakusketa prestatu du Elizondoko eskolak Arizkunenean. Ikasleek egindako erakusketaren bitartez, Munduko herriak hobeki ezagutzeko aukera ematen dute.

ZUGARRAMURDI

KULTURA → URRIAREN 24AN

Musika eta dantza ikuskizun ederra eman dute lezean

Eguberri egunean ETBn eskainiko dute

Margari eta Koro

Sarrera merkea ez zen arren, 15 euro ordaindu behar ziren, herrian berean halako espektakulo ederra ikusi ahal izatea opari bat izan da.

Urriaren 24koa gau gozoa suertatu zen. Lezerako bidetik urrunean Sarako argiak ikusten ziren, eta baita Larun puntako antenaren argi gorria ere. Sarreran esperoan zirenak, hantxe izan zituzten lagun pareta gainean jarrita zegoen katu txuri bat, eta Malastako behiak. Horretaz gain, lezeak elegante-elegante ongi etorria egin zien bertaratu ziren 800 ikusle.

Eszenatoki horretan xarmangarriak izan ziren Iruñeko Orfeoia eta Erramun Martikorenak eskainitako kantak. Horretaz gain, Baztan go dantzariak ukitu hun-

kigarri bat eman zieten piezajakin batzuei, adibidez auresku eta axuri beltza dantzatu zituzten. Gainera, Mikel Markez kantariaketa Joxe Angel akordeoilaria ere parte hartu zuen emanaldian Erramun Martikorenari kantu batzuetan dotore lagunduz.

Erran behar da ekitaldi honetan Joxe Angel jotzen ikustean ilusio haundia eragin zuela herrian, Zugarramurdiin estreinatu zelakoz Joxe Angel musikari bezala. Orduan 15-16 urte zituen eta inauterietan jotzera etorri zen. Urteak ez dira alferrik igaro eta akordeoarekin trebezia hartu eta musikari bikaina dela argi dago, maila gorenean aritzeko gai dela erakutsi zuen bertze behin ere.

Finitzeko, aipatu emanaldiaz zuzenean gozatzeko aukera izan ez zutenek Eguberri egunean ETBn ikusteko aukera izanen dutela.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Iruñeko Orfeoia eta Baztango dantzariak lezeetako emanaldi ederrean.



ARGAZKIA: ESKOLAK UTZIA

Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoak Senda Vivan

Gaur egungo irakasleek badakite ez dela eskolan bakarrik ikasten, bertze gisara, eta bertze tokiak ezagutuz ere, ikasleek aunitz ikasten dutela. Hori dela eta, gure bi herrietako haurrak, Senda Vivara eraman zituzten urriaren 15ean. Bidean paisaia bereziak, guretik hain desberdinak diren lur-eremuak, eta Erriberako herrietan dituzten bertze gisako etxeak... ikusi ahal izan zituzten. Eta Senda Vivara iritsitakoan mota askotako animalian, zer erranen dugu ba! Aipatzekoa da (eta es-timatzekoa) bidai honetan 14 gurasok ere parte hartu zutela.

URDAZUBI

Gauinara elkartearen urteko afaria larunbatean egingen dute

TTIPI-TTAPA

Gauinara Elkartek urtero bezala afaria eta besta antolatu ditu azaroaren 14an. Afaria baino lehen, gaueko 9tan bilkura eta aperitifa egingen da. Ondoren, 9.30tan afaria eta gero besta gorputzak aguantatzen duen arte. Izena eman nahi duenak, beti bezala Montxora hurbildu behar du eta izena ematearekin batera 10 euroko fidantza bat. Azaroaren 8an akitu en izen emateko epea. Afariaren kostuaz antolatzaileek jakitera eman dutenez,

bazkideentzat 30 eurokoa izanen da eta bertzeendako 40.

Kantu Zaharren Eguna azaroaren 21ean Lugaranan

Azken urteetako ohiturari eutsiz, kantu zaharren eguna egingen dute azaroaren 21ean Lugarana jatetxean. Hamabigarren edizioa beteko du aurtengoan eta urtero bezala, jatetxea ttiki geldituko da bazkarian eta bazkalondoko giroan parte hartu nahi zuten guztiak hartzeko.



ARGAZKIA: INIGO IMAZ

Naturak ez ohiko ikuskizuna eskaintzen digu, herrian zikoinak baitabilta: Hemen dagoen hegazti "zentroak" ekarri dituenak batzuk eta bere gisara etorri direnak bertzeak.

GIZARTEA → URRIAREN 24AN BAIONAN

Iparraldeko herri elkargo bakarria sortzea eskatu dute ahobatez hautetsiek

Berezko euskal egitura aldarrikatzeko

Franck DOLOSOR

Deiadar manifestaldiak 5.000 lagun inguru bildu zituen Baionan urriaren 24an euskararen ofizialtasuna eta Ipar Euskal Herri mailako instituzioa aldarrikatzeko. Manifestarien artean adin eta sentsibilitate aunitzeko senpertarrak egon ziren.

Bigarren aldarrikapena herriko etxeraino heldu da berriki eta ordezkariak duten hiru talde-tako hautetsi guzietatik aho batez onartu dute gaur egungo hamar herri elkargoak bakar batean batzea Ipar Euskal Herriko 158 herriak biltzeko. Frantziako gobernuak ezezeko borobila eman die beti Iparraldea egituratzeko aldarrikapenei.

Parisek proposamena jarri du azkenean mahai gainean: NOTRe dezentralizazio eta berregituratze lege berria baliatzea Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa biltzeko. Lehen euskal egitura sortuko da 158 herrien erdia horren alde agertzen bada eta herri horiek herriarren erdia ordezkatzeko. Abenduaren 2a aitzin beren iritzia jakinarazi behar dute auzapezek eta inguruan dituzten herrietako kontseilari guzietatik. 2016ko martxoa eta maiatza artean proposamena bozkatuko da eta bi baldintzak betetzen badira 2017ko urtarrilaren 1ean Iparraldeak berezko lehen egitura izanen du.

Pierre Marie Nobsbaum auzapezak erran zuen «NOTRe legea bihurria dela baina erronka haundia eta aukera pa-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Hautetsiek, euskaltzaleek eta gaskoizaleek parte hartu zuten Baionako manifestaldian.

regabea dela Euskal Herriarentzat». Badaki ariketa zaila izanen dela baina gogoratu zuen hamar urtez hego Lapurdiko herri elkargoak onurak bertzerik ez dizkiela ekarri Senpere eta inguruko herriari. Senpere Elgarrekin oposizioaren izenean Dominique Idiarrek gogoratu zuen bere taldea alde zela, duela bi urte Parisek baztertu zuen lurralde elkargo bereziaren proiektua sostengatzen baitzuen jadanik. Idiarren ustez parada historikoa da Euskal Herriarentzat. Azkenik, ezker

abertzalearen ordezkari bakarrik azpimarratu zuen bere taldeak nahiago zituela lortu egiazko autonomia estatutu bat eta erabakitze eskubidea. Jean François Bedere de oharatarazi zuen garrantzitsua dela Iparraldeko muga historikoak lehen aldikoz errespetatuak izatea eta beraz, Paristik datorren proiektua babestuko zuela. Hautetsiek aho batez eman zioten oniritzia Frantziako Gobernuak Euskal Herrian duen ordezkariak egin duen proposamenari. Hego La-

purdiko herrien artean iritzia ematen lehena Senpere izan da. Gero eta gehiagok sostengatzen dute egitura, izan ere, mugaz gaindiko harremanak sendotzeko tresna izan liteke. Euskadi-Akitania Euroeskaldean sartzeko eskaera egin du berriki Nafarroako Gobernuak, baina Iparraldean aldaketa instituzionala gauzatzen bada, Uxue Barkosek eta Iñigo Urkulluk Baionan egonon litzatekeen buruzagi batekin solas eginen lukete zuzenean Bordenabek pasagabe.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarinetatik
2 km. tara

PLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

VENTA PEIO

T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Bera (Administrazioa) 31780 BERA Dantxarinea 31712 URDAX Ibañeta 31780 BERA Luzalde 31660 LUZAIDE

tabac prêt à porter restaurant supermarché cadeaux maroquinerie

SARA

KULTURA → AZAROAREN 21EAN

Maialen Lujanbio eta Sutrai Colina kantari ariko dira ikastolaren bertsu afarian

Unai Gaztelumendik marrazkiak eginen ditu, gaia emateko

Joana GERENDIAIN

Azaroaren 21ean, Olhain ikastolak bere bertsu afaria antolatu-ko du Lur Berri gelan. Maialen Lujanbio eta Sutrai Colina bertso-lariez gain Unai Gaztelumendi marrazkilaria ere gonbidatu dute bertso saio berezi bat osatzeko. Bertsolariak libre-

an ariko dira marrazkiak gaitzat hartuz. Unai bertsoen arabera marrazkiak osatzen ere joanen da momentuan. 20 euroko menua proposatua da: kuia salda, onddo eta gaztain batzuez horniturik, idikia saltsan eta pastak, ardi gasna, pastiza, kafea, arnoa eta ttotta. Erreserbatzeko 06 32 96 7131 zenbakira deitu behar da.

Santa Katalinako besta

Azaroaren 22an, ohi-turari jarraiki Santa Ka-



UTZITAKO ARGAZKIA

Colina eta Lujanbioren bertsoak eta Gaztelumendiren marrazkiak izanen dira bertso saio berezi honen osagaiak.

talina ospatuko da Saran. 10:30ean meza santa katalinako kape-ran emana izanen da, ondotik 11:30ean auzoko zintzur bustitzea zerbitzatua izanen da. Usaian bezala, bazkari bat antolatua da Baratxarrea jatetxean, 29 euroko menu batekin: garbantzoak, xerri muturra eta lukainka erreak, tripotxak "bixi bixi" saldan, ahate txiki errea

patatekin, sagar hostore epela banillazko izozkiarekin. Erreserbatzeko 0559542048 zenbakira deitu behar da.

Mus eta poker zoingehiagoka eskolako kantinan

Azaroaren 28an eskola publikoak mus eta poker zehingehiagoka antolatu du eskolako kantinan, arratsean.

Izen-emateak azaroaren 2a baino lehen egin beharko dira telefonoz 0643964215 zenbakira deituta. 10 euroko parte-hartzea eskatua da ekipaka. Bertan jan eta edaten ahalko da.

Kirol emaitzak

Azaroaren 1ean, Barsurdeek jokatu gabe 25-0 irabazi zioten Campet et Lamolère-eko ekipari, opor egin duelako.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA) | DONEZTEBE (SAN PEDRO)
ELIZONDO (BAZTANDARRA) | ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -



Martzutzak
ZURE OSPAKIZUNETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA

- ♥ Soinekoak
- ♥ Ilerako apaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria

Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425

EZKONTZAK

Aitziber Mindegia Ugarte eta Mikel Olmedillo Elizondo, Arraiozkoa eta Altsasukoa, urriaren 10ean, Elizondon.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Petti Ithurbide, Sarakoa, urriaren 12an.
Oihan Lasa Perez, Lesakakoa, urriaren 29an.
Maren Danboriena Errandonea, Arantzakoa, urriaren 20an.
Ibai Ziluaga Iturria, Arantzakoa, urriaren 28an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

ttipi-ttapa

Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

HERIOTZAK

Antonio Legia Gorria, Berakoa, urriaren 24an, 94 urte.

Jose Antonio Irisarri Arriuria, Elbetekoa, urriaren 25ean, 82 urte.

Arantxa Zabaleta Zestau, Leitzakoa, urriaren 26an, 53 urte.

Jose Antonio Sanz Azparren, Berakoa, urriaren 31n, 77 urte.

Monique-Jeanne Susperregi, Sarakoa, urriaren 13an, 84 urte.

Jean Iratzoki, Sarakoa, urriaren 17an, 82 urte.

Jose Antonio Erbiti Treku, Leitzakoa, azaroaren 3an, 64 urte.

José Iglesias Pérez, Berakoa, azaroaren 3an, 85 urte.



Jose Angel 'KOTTO' ALTZUGUREN PERURENA

Beran, 1966-III-03/Sorian, 2005-X-31

X. URTEURRENA

Eman zenuen bizia euskaragatik, herriarengatik, Euskal Herriagatik, eta azken bederatzi hilabeteetan familia eta lagunei eman zenien bizia, joan arte.

ETXEKOAK



Oroigarriak egiten ditugu

ttipi-ttapa Koskontako bidea, 07-1. | 31770 LESAKA | 948635458

LASTERKETAK → BI HILABETEREN FALTAN

10x100 erronka erraz bete du Manttalek

Hamar urte bete dituen urtean ehun lasterketa baino gehiago burutu ditu

TTIPI-TTAPA | BERA

Manttale Mendi Lasterketa Taldeak, bere hamargarren urteurrena ospatzeko, urte batean 100 lasterketetan parte hartzeko erronka gauzatu du. Limone Extremean lortu da ehungarren lasterketa burutzea, bertan Unai Santamaria izan baitzen. Erronka honetan, taldeko partaideen artean, ehun lasterketa desberdinetan parte hartzea bilatzen zen eta erronka burutu ez ezik, erraz gainditu du Manttalek.

Otsailean, lehenengo lasterketan parte hartu zenetik (José González Cano Memoriala Iruñen), urriaren 18ra arte, Manttalek 69 Mendi Lasterketa eta 31 errepideko Lasterketetan parte hartu du.

Manttalek parte hartutako frogen artean EH Mendi Erronka, Zegama-Aizkorri, Azkoitia-Azpeitia, Lezo-Jaizkibel, Senpere Trail, Sarako Trail, Larraul-Ernio-Larraul, Hiru Mendi Lasterketa, Donostia-Hondarribia Talaia Bidea, Neska Korrika, Erlaitz Aiako Harria Mendi Lasterketa, Hiru Mendi Trail, Goizueta Trail, Camille Extrem, Ultrasky Marathon de Madeira, Triku Trail, Goierriko Bi Handiak, Alkaiaga Trail, Berako Gau Lasterketa, Agerrako Krosa,



UTZITAKO ARGAZKIA

Manttaleko korrikalariak iraileko Sara Korrikan. Bertze ehun proba baino gehiagotan parte hartu dute aurtan.

Dolomitas Sky Race, Azkaine-Larun-Azkaine, Nafarroa Oinez Lasterketa, Sara Korrika, Txin-gudi Korrika, Orreaga-Zubiri, edo 3 hondartzen Krossa daude, bertze aunitzen artean

Beharrezkoa da oroitaztea, 10x100 erronkan kontaketa egiterako orduan, proba batean Manttaleko parte hartzaile batek baino gehiagok parte hartu duenean, proba bakar bat bezala kontatu dela.

Txus Unson da proba gehienetan parte hartu duena (31), Gwendal Larqué-k segitzen dio (16rekin) eta Andoni La-

sagak (12rekin). Momentuz, erronkan 56 korrikalariak parte hartu dute eta parte hartze handiena izan duen proba Berako Gau Krosa izan da 27 taldekirekin, ondoren Berako Mendi Maratoi Erdia eta Alkaiaga Trail-a (17na).

GARAIPENAK ERE

Hainbat garaipen ere lortu dira 100 lasterketa hauetan, hala nola aurtan Manttalerekin ari den Didier Zagok, Azkaine-Larun-Azkaine eta Berako Gau Krosa irabazi ditu. Joseba Larraledak Bidarraiko Mendiko Erdi Maratoia,

Olazti-Urbaşa eta Etxarri Aranazko Mendira Joan Etorria lasterketak. Gainera Unai Santamaria, senior kategorian Euskal Kopako txapel-duna izan da.

Zerrenda hau, oraindik gehiago luzatu da, urri hondarreko Lizuniagako igoeran; azaroaren 1ean, Ardanatzen Izaga Trail-ean eta igandean honetako Behobia-Donostian, erraterako.

Manttaletik eskerrak eman nahi dizkiete «erronkan parte hartu duten korrikalariak, animatu gaituztenei eta hamar urte betetzea posible egin duten guztiei».

LASTERKETAK → JAVI PEREZ IRUNDARRA ETA LURDES OIARTZABAL LEZOTARRA

Gipuzkoarrak nagusitu dira Lizuniagako Igoeran

115 korrikalari izan ziren proba nagusian eta 97 tiki

TTIPI-TTAPA | BERA

Lizuniagako igoeraren XXXV. edizioa burutu zen urriaren 24an. Partaide kopuruari be-

gira, guztiz arrakastatsua izan zen. Haurren kro-sean, 97 neska-mutikok parte hartu zuten.

Lasterketa nagusian 115 partaide bildu ziren (proberen historian bigarren partaidetza altuena). Javi Perez irundarra irabazle suertatu zen (17'57") eta Fernando Etxegarai beratarra

8 segundura ailegatu zen. Hirugarrena Santi San Miguel donezteb-arra izan zen.

Emakumeen artean, iaz bezala, Lurdes Oiartzabal lezotarra izan zen irabazle, aisa nagusitu baitzen (21'44"). Bigarrena, Ane Eltzaurdia beratarra izan zen (23'19") eta hirugarrena Tania



UTZITAKO ARGAZKIA

Javi Perez Lizuniagan helmugaratzen.

Arraran gaztea (24'14").

Emakumeen partaidetza %20koa izan da eta 48 beratarrek parte hartu zuten lasterketan. Batista Telletxea beratarra aurtengoan ere ez zuen hutsegin eta

35 edizioetan parte hartu du.

Gure Txokoatik partaide guztiei eskerrak eman nahi dizkiete eta batez ere, lasterketa hau posible egiten duten laguntzaile guztiei.

MOTORRA → URRIAREN 31N LESAKAN

Ikusmina piztu zuen Agiñako VI. Auto Igoerak

53 ibilgailuk hartu zuten parte eta ehunka ikusle bildu ziren

TTIPI-TTAPA | LESAKA

2007az geroztik ez zen rallyrik ikusi Lesakan, baina urriaren 31n burutu da Agiñako igoeraren seigarren edizioa, Nafarroako Mendi Txapelketa eta Nafarroako junior txapelketa jokoa zituena. Nafarroako Automobilismo Federazioak antolatu du lasterketa, Navarra Sport

eskuderiaren laguntzaz, eta 4,6 kilometroko ibilbidea izan du. 53 ibilgailu hurbildu ziren Lesakako probara eta horrek ikusmina piztu zuen. Goizean, frontoia-
ren aparkalekuan utziak zeuden autoak ikusten hainbat lagun ibili ziren eta arratsaldean, Agiñako malda osoan eta batez ere Gardelko Bagoeta inguruan jendetza bildu zen.

Eskualdeko gidarien artean, Joseba Beola beratarra seigarren izan zen sailkapen orokorrean eta lehenbizikoa bere klasean, Mitsubishi



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

Ibilgailu ikusgarriak Agiñako maldan goiti, proba hasi baino lehen. 2007tik ikusten ez zen irudia izan da aurtengoa.

Lancer Evo autoarekin. Berriki lur gaineko RAC Focus Vasconavarro kopa irabazi duen Iñaki Ubiria lesakarra 20. izan zen sailkapen orokorrean, hirugarren bere klasean, aldi honetan Renault Clio Sport batekin. Asier Almandoz beratarra ere Clio bat gidatu zuen eta laugarren izan zen bere klasean (22. Sailkapen orokorrean). Imanol Oskoz eli-

zondarrak Peugeot 205 bat gidatu zuen eta 26. izan zen; Oronoz-Mugairiko Gorka Oteiza 29. Citroen Saxoarekin eta Andoni Blas doneztebarra 38. BMW 325i autoarekin.

KOTETO ALTZUGAIRAI OMENALDIA

Arratsean plazan egin zen sari banaketa eta bere garaian Eguzki Sport elkartearekin an-

tolaketa lanetan eta egun horretan ere laguntzaile izan zen Koteto Altzugarai lesakarrari omenaldi xume bat eskaini zitzaion.

Antolatzaileak gus-tura gelditu dira emaitzarekin eta heldu den urtean ere Agiñako maldan probaren bat egiteko asmoa azaldu dute, ahal bada Rallysprint formatoan (goiti eta beheiti, joan-etorria).

HERRI KIROLA → URRIAREN 30EAN ELIZONDOKO FERIETAN

Iker Vicentek irabazi du Euskal Herriko 2. mailakoa

Ruben Saralegi lehengusua bigarren izan zen eta biak lehen mailan ariko dira

TTIPI-TTAPA | ELIZONDO

Bigarren mailako Euskal Herriko aizkora Txapelketaren Finala jokatu zen Elizondon urriaren 30ean, ferietako egitarauaren baitan. As-te batzuk lehenago Nafarroako txapela jantzi

zuen Iker Vicente Saralegik lortu zuen txapela eta bere lehengusua, Ruben Saralegi leitzarrak, bigarren postua. Biak lehen mailan ariko dira.

Aizkolari bakoitzak seina pago-enbor eba-ki zituen: bi kanaerdiko (54 ontzako), bi 60 ontzako eta bi oinbiko (72 ontzako).

Iker Vicente Saralegik, 18 urteko aizkolari otsagiarrak jantzi zuen txapela, txapel hau lortu duen historiako aizkolari gazteena bilaka-

tuz eta aldi berean datorren urtean maila nagusian egonen denez, maila horretan sekulan aritu den aizkolaririk gazteena ere izanen da (iaz hirugarren mailako Euskal Herriko txapela jantzi zuen eta urte baten buruan bigarren mailakoa).

Ruben Saralegi izan zen txapeldunordea, minutu bat eta zortzi segundo gehiago behar izan zituen. Biak ala biak Euskal Herriko maila nagusian ariko dira heldu den urtean.



ARGAZKIA: IBON ERRAZU

Vicente eta Saralegi lehengusua, txapeldun eta bigarren.

DONEZTEBEKO FERIETAN

Nafarroako bigarren mailakoa jokoa

TTIPI-TTAPA

Asier Pellejero aresoarra, Eneko Saralegi leitzarra, Aitor Senosiain (Olague), Manuel Kañameres (Arostegi) eta Goizeder Beltza (Etxarri Aranatz) ariko dira Nafarroako bigarren mailako txapelaren bila, Doneztebeko ferietako jaialdian.

azaroak 13 - azaroak 28

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Solasaldia



LESAKA | 2015.11.13

>> **Edurne Pasabanen eskutik Piriniotik Himalaiara bidaia**

Mendigoizale gipuzkoarrak bere bizipen, gogoeten... berri emanen du, 20:00etan Harriondoa kultur etxeko Txokobiko aretoan.

Musika



LEITZA | 2015.11..15

Bertako ekoizleen produktuekin beteko da plaza

LeitzEKO kontsumo taldeak antolatuta azoka berezia izanen da plazan goizeko 10etatik eguerdiko 2etara. 22 ekoizle baino gehiagok jarriko dute postua.

Musika



ELIZONDO | 2015.11.15

Anne Etchegoienen ahots ezitia zuzenean

Folk ametsetan zikloaren baitan, Donapaleuko kantariak emanaldia eskainiko du gaueko 10etatik aitzinera Elizondoko Arizkunenean.

GOIZUETA

Difret filma

Azaroaren 22an,
19:00etan Ganbaran.

Amama

Azaroaren 27an,
19:00etan Ganbaran.
Sarrera: 2 euro.

Ikuskizunak

BERA

'Nor da otsoaren beldur'

Azaroaren 16an,
Haurrendako dantza ikuskizuna, 17:30ean

LEITZA

'Lau-aro' jaialdi-ikuskizuna

Azaroaren 27an,
22:00etan zinean.

Musika.

GOIZUETA

Nerea Erbiti eta Iñigo Agirrerekin kantaldia

Azaroaren 13an, gan-
baran 19:00etan.

ARANTZA

Hauspolariek

Azaroaren 14an.

ELIZONDO

Folk ametsetan zikloa

Azaroaren 15ean,
Anne Etchegoien eta
22an La Bojiganga,
Arizkunenean
22:00etan .

GOIZUETA

Leitzako Jeiki abesbatza

Azaroaren 21ean,
19:00etan Elizan.

BERA

Bera kantari

Azaroaren 21ean

ETXALAR

Mendi abesbatza

Azaroaren 21ean,
20:00etan elizan.

Erakusketak

ELIZONDO

'Saharako ahotsak: ahanzturaren kontrako erresistentzia'

Azaroaren 15era arte.
Arizkunenean, astez
17:00etatik 20:00etara.

ELIZONDO

'Itsaspeko bihotza'

Azaroaren 23tik
abenduaren 2ra.
Liburutegian.

ELIZONDO

'Munduko herriak'

Azaroaren 23tik
abenduaren 2ra.
Arizkunenean.

Gizarte Bilgunean
19:00etan.**Solasaldiak**

LESAKA

Pirinioetatik Himalayara

Azaroaren 13an,
20:00etatik aitzinera
Harriondoa.

GOIZUETA

'Birjinak ala putak' liburuaz

Azaroaren 18an, li-
buruaren aurkezpena
eta solasaldia
18:00etan jangelan

ELIZONDO

'Gizonezkoen sexismoa, maskulinitasuna eta askapena: berdintasunerantz'

Azaroaren 20an,
20:30ean Arizkunene-
an. Xabier Odriozola
Ezeizak liburua aur-
keztu eta ondotik so-
lasaldia izanen da.

Tailerrak

ELIZONDO

'Hezkidetza eta indarkeria matxista'

Azaroaren 18an Arizku-
nanean 17:00etan.

ITUREN

Lehen sorospenetako ikastaroa'

Azaroaren 21ean
Herriko Etxeko bule-
goan.

Zinea

LEITZA

'Maps to the stars'

Azaroaren 13an,
22:30ean eta **15ean,**
19:30ean.

'Fuerza Maya'

Azaroaren 20an,
22:30ean.

PROPOSAMENA

GOIZUETA

Azaroa: kulturaren hilabetea

Udazkenean kulturaz jantzi ohi da Goizueta eta aurten ere halaxe, azaroko kulturaldiaz ari diragozatzen. Ekitaldi ugari eginak dituzte dagoneko baina kantu, musika, antzerki, zinema, bertso edota literatura maite dutenek oraindik badute aukera. Bukarera borobila, azaroaren 28an emanen diete artisaui, nekazaritza eta azimendua Feria Egunarekin. Disfrutatu!

**Antzerkia**

BERA

XVII. Kafe Antzerki Zikloa

Azaroaren 13an,
Adarretatik zintzilik
Bidaxkan, 22:00etan.

Azaroaren 22an, *Desentxufatuak* Xugan,
22:00etan.

IRURITA

'Datorren urtean hobeto'

Azaroaren 29an,

BERA

Tempora taldea

Azaroaren 21ean,
20:00etan Kultur Etxe-
an. Sarrerak: 6 euro.

DANTXARINEA

Kantu Zaharren afaria

Azaroaren 21ean, Lu-
garana jatetxean.

Bertsolaritza

GOIZUETA

Xalto sariketako finala

Azaroaren 20an,
Umore Ona Elkartean
21:00etan.

SARA

Bertso-afaria

Azaroaren 21ean,
Oihain ikastolaren alde.

LESAKA

Bertso-bazkaria

Azaroaren 21ean,
Basurde elkartean.

ANIZ

Bertso-afaria

Azaroaren 21ean,
Elkartean. Uxue Alberdi
eta Julio Sotorekin.

Azokak

DONEZTEBE

Udazkeneko feriak

Azaroaren 13an,
Egitaraua 649. alean.

LEITZA

Azoka berezia

Azaroaren 15ean,
LeitzEko kontsumo
taldeak antolatuta
plazan 10:00(14:00).

LESAKA

II.Muxume feria

Azaroaren 15ean,
Dasya Zentroak
antolatuta. 10:00etatik
20:00etara.

LESAKA

Udazkeneko feriak

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Betiko atzo?

ARANO, LEIRE

Ibaizabal, 2015

Peru Abarka 2015eko lehiaketaren saridunak ikusi du argia. Leire Aranoren hitzek eta Benlen Lucasek egindako ilustrazioek osatzen dute liburua. Begi-zuloek dei egin diote sarrerako ispilutik, eta itaunka hasi zaizkio, gordin. Nora zozaz piura horrekin? Behingoz egun handia iritsi eta zu horrela? Lore ustel zimela! Itxura baino ez dela erantzun nahi lieke, itxurak zipitzik ere ez duela axola, begi azpiak ilun izanagatik ere lehengo bera dela, ospitaleko erizainik onena...

Musika



Larregi

PANTOMIMA

Baga biga, 2015

Larregi taldeak *Pantomima* izeneko lana kale-lratu du. Baga Biga musika ideiak diskoetxearekin ekoiztu dute taldearen hirugarren diskoa dena. Bederatzi kantaz osatutako lana da: Zuloan, Ostruka, 57, Gezurra ari du, Eroalea, Pantomima, Maskarak, Toxikoa eta Ez zaitez gelditu. Letra eta musika guztiak taldearenak dira, 57 abestia izan ezik; kanta honek Biffy Clyro taldearen izenburu berdineko kantan du oinarria. Eta lagun talde handi baten laguntza izan dute hainbat kantetan: Urtz taldeko Xabi, Eskean Kristö talde lagunmineko Pello, Gatibuko Iñigo...

Internet



Gastronomiaz
gozatzeko gunea

ZINEA.EUS

Sukaldaritza maite dutenentzat web gune aproposa da oso, errezeta bilduma zabala bildu baitute bertan. Eta gastronomiatik haratago, euskarari ere ekarpena egiten dio, sukaldaritzaren inguruko hiztegia topatuko dugu bertan, sinonimo hiztegi modukoa, era batera edo bestera esaten diren jakien izenen gida. Bilaketa tresna erraza ere badu, interesatzen zaizuen jakia edo janari taldea aukeratu eta hainbat errezetako zerrenda agertuko zaizue pantailan. Horrez gain argazki bildumatxoa ere jarri dute, eta galdetu, iritzia eman eta nork bere errezeta bidaltzeko aukera ere ematen dute besteak beste.

Azaroaren 25 eta 26an, Informazio gehiago gehigarri berezian.

BERA

Bigarren eskuko merkatu ttikia

Azaroaren 22an,
Labiaga ikastolak antolatuta, 09:00etatik 15:00etara, kiroldegi aitzinean.

GOIZUETA

Artisau, nekazaritza etaazienda feria

Azaroaren 28an,
informazio gehiago 52.orrialdean.

Mendi-ateraldiak

LEITZA

Leitza kaxkoz kaxko

Azaroaren 28an
Plazaola eta Rezola arteko bidea eta **abenduaren 19an** Rezola eta Kortekoborda artekoa.

Kirola

DONEZTEBE

Ferietako herri kirol jaialdia

Azaroaren 13an.
18:00etatik aitzinera., Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketaren finala eta I. Mailako Arpana Jaitsiera kanporaketa

LEITZA

Herri kirol erakustaldia

Azaroaren 22an.
12:00etan plazan.

LESAKA

Ferietako herri kirol eta pilota partidak

Azaroaren 26an. eguerdian Plaza Zaharrean herri kirolak eta 17:30ean pilota partidak udal pilotalekuan.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONÓZ-MUGAIRI. Pisua salgai, 90 m²ko azalerakoa. Etxe mogleztatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m²ko bajera ere salgai 15.000 eurotan. **948 585036.**

ANZABAL

INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagarriak base-riak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mogleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mogleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

BERA. Kantton Berri karrikan 77 m²ko pisua salgai. 2 logela, bainugela 1, egongela eta sukaldea despentsarekin. Igogailua eta buelta osoan 55.92 m²ko terraza rekin. Berritu beharra. **948 637359.**



ELIZONDO. Akulegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezio oso ekonomikoa. **646 774117.**

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako **3008 0080 56 0703304329** kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

BERA. Aparteko familia bakarreko txaleta

6.600m²-ko partzela.
Lorategi- zona fruta-arbolekin,
lursail zelaia. 230m²-ko azalera
erabilgarria. Egongela, sukaldea
portxerako sarbidearekin,
ikuztegia, 4 logela, 3 bainugela,
terraza eta garajea.



Tel. Inmo Baztango: **948 630 552 | 620 028 625**

LESAKA. Pisua salgai, herri erdian, eguzkitsua eta oso ondo kokatua. Hall, sukaldea, arropa zintzilikatzeko tokia, 2 logela, egongela handia, komuna eta trastelekua ditu. Aukeran garaje plaza, beste trasteleku batekin. Igogailua garajeraino. Sarbideetan oztoporik gabe. 186.000 eurotan. **657 708866.**



ERATSUN. 2 borda salgai, bere lurrekin. Goizez deitu. **620 676886.**

BERA. Legia karrikan 58 m²ko pisua salgai. 2. solairuan, hegoalderantz orientatua. Logela bat, egongela, sukalde ekipatua eta komuna ditu. Hari musikala eta kalefakzioarekin. Igogailua eta kotxearendako plaza bat du. **645 700549.**

IGANTZI. Herriko plazan dagoen eraikina saldu nahi da. Beheko aldean ostatua eta bi pisu ditu goian, bakoitza 110 m²koa. Terraza ederra du, 200 m²koa. Pre-

zio oso onean. Interesa baduzu deitu eta solastuko dugu. **640 583280.**

DONEZTEBE. Pisua salgai, 120 m²koa. Erdi mogleztatua, pisu ederra, argia, 4 logela, 2 komun, egongela ederra, sukaldea, balkoia eta 24 m²ko ganbara. **650 779128 / 647 810145**

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

LESAKA. 70 m²ko pisua errentan eman nahi da. **691 640856 / 648 637570.**

BERA. Legia karrikan pisua errentan eman nahi da. 3 logela, 2 bai-

nugela eta arropa zabaltzeko lekua ditu. Balkoi ederra. Osasun etxearen ondoan. **629 970002 / 686 803311.**

BERA. Agerra auzoan pisua errentan eman nahi da. Mogleztatua, 3 logela, 2 bainugela, 2 balkoi, berogailua eta igogailua baditu. **617 904941.**

BERA. Legia karrikan pisua errentan ematen da. 3 logela, 2 komun eta trastelekuarekin. **678 363398 / 678 305250.**

BERA. Logelak eta apartamentua errentan emateko. **654 385363.**

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

LESAKA edo inguruan etxebizitza errentan hartu nahi da. **642 993776.**

Bortziritan **baserri** edo **borda** bat errentan hartuko nuke, 2 hektarea inguruko lur eremuarekin. **655 028593**

ETXEBIZITZAK

konpartitzeko

Elizondo eta Donezteben lanean hasi berri den neska bat naiz eta logela/pisua bilatzen dut konpartitzeko edota errentan hartzeko luzerako. **689 765896.**

GARAJEAK/LOKALA

errentan emateko

DONEZTEBE. Herri sarrian dagoen 165 m²ko lokal komertziala erren-

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(urriaren 23tik 30era bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 28 €

Zerri gizena
1,052 € kiloak.

Zerramak:
0,410 € Kg/bizirik.

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 3,95
1.koa 3,72
2.koa 3,56

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,23
1.koa 3,97
2.koa 3,80

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 150,00
idixkoak 228,00

Aretze nabarrak:

urruxak 140,00
idixkoak 180,00
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,00/3,10
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 7,60/8,60
8-10 kilokoak: 7,30/7,50

tan eman edo saldu nahi da erretiroagatik. Hagitz argitsua da, erakusleho ederrekin. Interesatuak deitu konpromisorik gabe 630 510918 telefonora.



LURRAK/ORUBEAK salgai

BERA. Bifamiliarrak erakitzeko prest dauden partzela urbanizatuak salgai. 618 963226

ZERBITZUAK zurgindegiak

ARANTZA
Zurgindegia.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea
Tel: 948 634 068 - 647 810 144
Gorritibito - ARANTZA

ZERBITZUAK psikoanalista

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordua

948 272011 (IRUNA)
948 580975
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

LANA eskariak

Elizondo eta inguruan lan bila dabilen emakume bat naiz. Arlo askotan esperientziaduna: ostalaritzan, lore-zaintzan, garbiketan, komertzioan eta minusbaliotasuna duten pertsonak zaintzen lan egin dut. Zaintzaile titulua ere badut. Lan eskaintza-zen bat baduzue deitu, 637 153690.

Lan bila nabilen neska gaztea naiz. Haurrak zaintzen esperientzia dut baita komertzio lanetan ere. Horretaz gain, beste arloetan aritzeko ere prest nago. 722 516485.

Malerrekako emakumeak bere burua eskaintzen du **gauetz lan egiteko**, edozein gauzetan. 679 210910.

Lesaka edo inguruan lan bila dabilen emakumeak portalak garbitu edo adinekoak zainduko lituzke. 642 993776.

Orduka lan bila nabilen emakume bat naiz. Sukaldaritzan esperientziaduna naiz eta baita zaintza lanetan ere. Sukaldari, garbiketa edo adinekoak zaintzeko eskaintzen naiz. Beste arloetan ere interesatua nago. Interesa baduzue deitu 689 449933.

Bera edo Lesaka inguruan lan egiteko emakumea eskaintzen da. Etxeko lanak egiteko, adineko jendea zaintzeko, bulegoak garbitzeko... 948 630914/ 678 903294.

Emakumea eskaintzen da **garbiketa lanak** egiteko: etxeak, bulegoak, portalak... interesatuak deitu faborez 677 217590.

LANA eskaintzak

URDAZUBI. Montxo ostatu-jatetxean sukaldari laguntzailea behar da. Esperientziarekin. 948 599039.

LESACA. Atxaspi hotolean garbitzailea behar dugu. Interesatuak deitu 948 637536/647 456611 edo idatzi hotela@atxaspi.com-era.

Ibardin asteburuetan lan egiteko zerbitzaria behar da. Frantsesa jakitea kontuan hartuko da. Interesa dutenek deitu 948 6303 11ra.

ZERBITZUAK klase partikularrak

BORTZIRIAK. Unibertsitateko ikasle bat naiz, klase partikularak ematen nizkieke Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoko ikasleei. Ingelseko C1 maila daukat eta mugitzeko aukera. 626 452614.

MOTORRAK salgai

Automóviles IMOBA
Okasioko ibilgailuen salerosketa

VW GOLF 1.6 TDI 105 CV
2012 URTEKO

RENAULT ESPACE 25 URTEURRENA
2010 URTEKO

FORD FOCUS FAMILIARRA
2011 URTEKO

CITROEN BERLINGO MULTISPACE
2011 URTEKO

Iruñ-Iruña errepidea
N-121-A 63 km BERA
948 630 750 | 648 231 361
www.automovilesimoba.com

Scania kamioia salgai bere tarjeta nazionalarekin. 630 886916.


MOTORRAK tailerrak

GANIX
Tailerra

948 63 06 69
Iturizandeta, 6 BERA (NAI)

ANIMALIAK salgai

Persa arrazako lau katakume salgai: 2 ar eta 2 eme. 687 346415 (arratsaldez deitu)



ANIMALIAK oparitzeko

LEITZA. Bi hilabeteko artzain zakurra oparitzeko. 948 510224.

DENETARIK salgai

Sei **altzairuzko fregadera** salgai, haundiak, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. 948 585036.



DONEZTEBE. Hiru sukalde ditugu salgai. Diseinu modernoa, Silestone enzimarekin, kalitate handikoak. Ez eza zu galdu aukera bikain hau! Informazio gehiagorako 630 510918.



ORONÓZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramaten da. 676 242520.



SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehe-tua 659 867287/ 699 461394.

DENETARIK bertzelakoak

BERA. Martxan dagoen negozioa errentan eman nahi da. 605 864355.



IGANTZIKO UDALA

1. poligonoko 846. lurzatiaren xehetasun azterlana.

Hasierako onespina

Igantziako Udak, 2015-eko urriaren 29an egingako bilkuran, erabaki zuen hasiera batean onspina 1. poligonoko 846. lurzatiaren xehetasun azterlana eta honen eranskina, dagoen eraikina handitu eta bertan bizitza berria egiteko.

Sustatzailea Julen Txopereña Migelena jauna da.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 76. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, espedientea jendaurrean egonen da hoguei egunetan, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, azter dadin eta bidezko alegazioak aurkez daitezzen. Jendaurreko epean inork ez badu alegaziorik aurkezten, dokumentua behin betiko onetsiko da, bidezko bada.

Igantzi, 2015.11.03

Alkatza,
M. Lourdes Ibarluzea
Iruireta

hemen
agertu
nahi
duzu?

egin zure erosketa
erran.eus en

IRAGARKIA
2 aldizkaritan
interneten

8
EURO

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txakea; 4) www.ttipi.net bitartez



Nor ote da hirukote hau? Azaroaren 6, 17 eta 28an urteak beteko dituzte. Auniz urtez familia guztiaren partetik eta egunaz asko disfrutatu. Muxuak



OIHAN OIARTZABALEK 4 urte beteko ditu azaroaren 15ean. Aitaxi Sebas, amaxi Inma, eta osaba Koldoren partez: besarkada haundi bat sorgintxo!!!!



Sunbillako **JONE BERTIZ ARIZTEGIAK** azaroaren 1ean 2 urte potolo beteko ditu, bi muxu handi familia guztiaren partetik, baina berexiki bere aizpa Ekiñeren eta bere lehengusu Joanes, Urki eta Haritzen partetik!!!



Aurtizko **PAKITA** eta **LEIANE** amaxi bilobak azaroaren 22an urteak beteko dituzte. Muxu potolo bana familia guztiaren partetik. Zuen bazkariaren zain gelditzen gara.



ARATZ BARANDARAIN ARANALDEK lau urte beteko ditu azaroaren 23an. Zorionak gure nekazari finari! Etorri Aresora abxurra prest izango duzu eta! Muxu pilla pilla, patata tortilla!



ENERITZ GARAIALDE ZOZAIK 2 urte bete ditu azaroaren 3an, zorionak eta muxu asko pottoka, Urrozko eta Hondarribiko familiaren partez.



LEIREK azaroaren 27an urtea beteko du. Auniz urtez gure printzesari eta mila muxu potolo!



Lesakako **JULEN CANAL ARTOLAK** 4 urte bete ditu urriaren 28an. Zorionak Julien! Ze jatorra zauden!!!! Ederki ospatuko dugu! Muxu handi bat familia osoaren partez!



Berako **NAHIA GOMEZ RIBEIROK** azaroaren 18an 3 urte beteko ditu. Muxu handi handia zure guraso, osaba, aitaxi eta amaxiaren partez. Zorionak eta auniz urtez!



Doneztebeko **NAHIA IRIARTE MIKELARENAK** azaroaren 16an 5 urte beteko ditu. Zorionak Sunbillako eta Arantzako familiaren partetik, eta berexiki atta, ama eta zure anaia Aimarren partetik. Muxu handi bat eta egun on bat pasatu printzesa!!



AIMAR OLAIZOLA eta bere emazte **OLAIA** zorionak auniz! Urriaren 26ko partez, beren bigarren umearen, Joanen, jaiotzagatik. Urdazubiko Alizia Olaizola eta bere familiaren partetik.



Aurtizko **LEIANE ALTZURI MINDEGIAK** azaroaren 22an 4 urte beteko ditu. 4 muxu haundi aita, ama eta berexiki bere aizpa Naikariren partetik.



Urrozko **INTZA IRIBARREN ELIZALDEK** urtea beteko du azaroaren 28an. Sorgintxo polita zorionak eta muxu auniz denon partetik!



Urdazubiko **MARIA LUISA ZALDAINENAK** urteak bete ditu azaroaren 13an. Auniz urtez! Ondoan dauden bi Pabloen partez eta familiaren partetik.



OIER ALZUGUREN BARBERENAK, gure etxeko morroxkoak, lau urte beteko ditu azaroaren 15ean. Auniz urtez Zigaurreko eta Berako familien partetik. Lau muxu haundi.!!!



Azaroaren 7an 5 urte bete ditu **MARTXELEK**. Zorionak polita, guraso, amaxi eta osaba-izeben partetik. Muxuak ta besarkadak!



Doneztebeko **JUNE TELLETXEAK** eta Eratsungo amaxik urtebetetzeak ospatuko dituzte azaroaren 25 eta 21ean. Zorionak familiaren partetik!



Lesakako **OIHANEK** 4 urte beteko ditu azaroaren 15ean. Zorionak pottoko zure 4. urtebetetzean familia osoaren partez!!!



hemen agertu nahi duzu?

argazki soila

4

EURO

argazki bikoitza

8

EURO

ALDIZKARIAN eta INTERNETEN

Zorionak zuri, zorionak zuri, zorionak zuri, zorionak beti!!!

egin zure erosketa

erran.eus en



MUNDUAREN AZKEN MUTURREKO EROSLEA



Zuregatik behar den lekuraino joango gara. Hori dela eta, EROSKI online Supermerkatuan Euskadiko eta Nafarroako lurraldearen %100ean ematen dugu zerbitzua. Zauden lekuan zaudela ere zurekin egoteko, zure munduaren, gure lurraldearen azken muturrean egonda ere.

eroski.es

lurraldearen
%100 -era
iristen gara

ttipi txartelarekin
beti irabazten da!

ttipi txartela

Miren IPARRAGIRRE HUALDE
72673111-B

npemuga
04/2016
Zk. 123456

ttipi-ttapa

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

ZOZKETAK

**648. ALEKO
IRABAZLEAK:**

Kamiseta bat | BUATXABAL
Juanxo Berho | LEKAROZ
5 sesioko bonoa | TOKI ONA KIROLDEGIA (Urdu S.L.)
M^a Asuncion Ameztay | LESAKA
2 sarrera | IRRISARRI LAND
Laura Goñi | ITUREN
2 liburu sorta | EREIN Argitaletxea
"Neskatalak" bildumako 2 liburu
Igokunde Aleman | LEITZA
"Munstroen kutxa" bildumako 2 liburu
Arantxa Etxeberria | BEINTZA-LABAIEN
2 produktu sorta | LANKU
Cesareo Gartxitorena | BERROETA
Laureano Martiarena | BERA
2 sarrera | DONOSTIAKO AQUARIUMA
Miguel Tajadura | Barañain

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

koskontako bidea 7 LESAKA
T 948 635 458 | F. 948 635 457
info@ttipi.eus
erran.eus

DESKONTUAK

Tri Sarri

LAND

IGANTZI | %50, sarreran eta
%20, tirolinan eta penduloetan

FOTO-ARGAZKIAK
GOIKO

BERA | %10, kopia digitaletan

kukuka

DONEZTEBE | %10, pijama eta
baruko arropetan

AGARRA
KIROLAK

BERA | %5, kirol artikuluetan

DATUCELAY

SEPT

ELIZONDO | %10, bateria eta
amortiguadoretan

autoeskola

BERA/LESAKA | %10, matrikulan

KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapunto.com



Lanku



2 PRODUKTU SORTA
Lanku
www.lanku.com



2 LIBURU | Ttarttalo argitaletxea
"Nire sekretuen zuhaitza" | "Animaliak eta ni"
www.ttarttalo.eus

BIZIPOZA CDa +
"Txo, Mikmak txikia" POSTERRA
Pirritx, Porrotx eta Marimotots
www.katxiporreta.com



2 SARRERA
Donostiako Aquariuma
www.aquariumss.com

AQVARIVM



2 SARRERA
Sorginen Lezeak
www.turismozugarramurdi.com